


# anaitasuna

1978. EKO UZTAILAREN BIGARREN ETA ABUZTUAREN LEHEN HAMABOSTALDIA. 386-7 Alea-80 pzta.

● ba dugu autonomiatxo paktua !

**OSKORRI, herri kantagintzaren bidean**  
\*\*\*\*\*

**U.E.U.**  
**urrats berri bat aurrera**  
*(dosierra)*



# EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTzea.



© GRUPO

Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.

(2.000 a 100.000) \_\_\_\_\_ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

**Ordaintzeko era**

Giro n.º \_\_\_\_\_ Cuenta corriente n.º \_\_\_\_\_

Bankoa \_\_\_\_\_

Deitura \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_ Telefonoa \_\_\_\_\_

Hiria \_\_\_\_\_ Probintzia \_\_\_\_\_

**egin**

**HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.**

# AURKIBIDEA

AZKUE BIBLIOTEKA  
EUSKALZAINDIA  
BILBO

3313

22 OCT. 1979



4. Artikuluburua
6. Ba dugu autonomiatxo paktua. J. Llerandi
8. Dossier Euskadi. M.L.Uhaitze
10. Euskal Erresistentzia Zibila. A. Eguzkitza
12. Turismoari bonbak. I. Urtasun
14. Gobernua eta bere gorputz errepresiboak. Galtzagorri
16. Menestra izugarria. B. Barandiaran
18. Jatetxeak euskalduntzeko. Jale on
20. Hamabost egun hankaz gora. I.Zabaleta
- 22.UEU-DOSSIERRA
36. Colombia: Diktaduraren kontrako burruka.M.J.Esteban
38. Irak: Zapalkuntza gogorra. M. J.Esteban
40. Txinan agur sozialismobideari(2). Mendizabal
42. Oskorri. Soziologia, politika eta herri kantagintza. K. Arko
45. Marisa Ozaitarekin Madrilgo herbestetik. B. Barandiaran
48. Lafargue-k arrazoi zuen. K. Santisteban
49. Herman Hesse. Arima baten bizitzea(1).Txemi
50. Hormazko barrenetan. K.Santisteban
52. Liburu berriak. J. Sendagorta
54. Nikolas Lekuona. J. Sendagorta
56. Erregai zelula zentralak. Elhuyar
58. Gurutzegrama. L. Trask



# anaitasuna

**KOORDINAKETA**  
J. R. Etxebarria

**IDAZKUNTZA**  
J. Llerandi, T. Trifol

**IDAZKUNTZA KONTSEILUA**  
J. Agirreazkuenaga, Andolin  
Eguzkitza, J. R. Etxebarria,  
Miren Izagirre, J. Llerandi,  
E. Martin, Joseba Sarrionandia,  
T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta  
**ARABA**

E. Knorr

**BIZKAIA**

J. Llerandi

**GIPUZKOA**

I. Urtasun, A. Oiartzabal

**IPARRALDEA**

M. Lanata

**NAFARROA**

I. Zabaleta, B. Zabaleta

**NAZIOARTEKOA**

A. Eskisabel, M. J. Esteban, T. Trifol

**IDAZLE ETA LANKIDEAK**

J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torre  
alday, X. Kintana, A. Eguzkitza, P.  
Agirrebalzategi, Mariasun Landa,  
J. L. Alvarez (Txillardegí), J. Men-  
dizabal, E. Entziondo, S. Laffite,  
M. Pagola, J. Sarrionandia, J. J.  
Bakedano, Natxo de Felipe, F. Ala-  
ña, J. Etxeberri, B. Barandiarán,  
K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde,  
J. R. Bilbao, J. M. Arzubia, K.  
Santisteban, B. Atxaga, J. Idigoras.

**MAKETAPENA**

R. Zumalabe,

**KOMIKJAK**

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia,  
X. Etxenike, Gentz, Monty

**MARRAZKILARIAK**

Ttua taldea

**PUBLIZITATEA  
ETA**

**HARPIDETZA**

J. Idigoras, A. Uria


**ANAITASUNA**

Zabalbide, 68-entlo. BILBAO-6  
Tfnoa: (94)4335808

**MOLDIZTEGIA**

**Estudios Gráficos**

Lege Gor. D. L. BI-1753-1967



# ETORKIZUN BELTZA

Inork ez dezala dudarik izan, burjeseriaren baliabideak eta maniobra ahalmena izugarriak dira, inizatiba bere eskuetan uzten ba zaio.

Moncloako paktuetaz ez zuten erdietsi krisi ekonomikoa gainditzeko egin aurreikuspenak betetzea. Porrot honek argi erakutsi zuen Espanol Estatuaren krisi estrukturalaren sakontasuna. Honek behartu egin zuen UCD-ren gobernua, botere apurrik galdu gabe, egitura politikoak erreformatzeko biderik egokiena bilatzera.

Hasteko, "español" guztion arteko harremanak konstituzionaldu zituen, oposizioa prozesu demokratikoaren ardatzetaz konpremetatuz, hau da, errekontziliapena eta berreraikintza nazionala, bake eta orde- nuaren gordetzea eta krisialdiaren gainditzea.

Behin erregio eta nazio autonomiak, Konstituzioaren hesparrua mugaturik erakunde autonomikoei estutuak banatzen hasi zaie, honela batzu eta besteak pozik izateko.

Trebeki jokatu dute, hori aritmetika hutsa da eta horretan sumakizuen ordenak ez du ondorik aldatzen.

Honela, lehenago Estatu osoaren mailan, krisi politikoaren kontresanengatik, inposiblea gertatu zitzaizen itun soziala, oraingotan bana bana eginen da autonomien bidez, eta hauetariko bakoitzak bere krisiaren zatia sabaltzeko konpromezua hartzen du, denon denominazioa komuntzat, Estatu Espainolaren batasun zatiezina harturik.

Oraingotan, lau dira guttienez datozkigun itun sozialak eta euskaldunok aukera izango dugu geure krisia konpontzeko, geure langabeziari soluziobideak eskaintzeko, geure langileon mobilizazioak geldiarazteko, geure gerrikoa hestutzeko, langileak eta ugazaberia errekontziliatzeko, denak euskaldunak noski, produktibitate indizeak jartzeko eta soldaten topeak ezartzeko, Madrilen bere egoitza nagusia duen sistema kapitalistaren beharrian globalen aurauera.

Hau da, Komunitate Autonomo baten partekide izateagatik (Madrildar lengoaia erabilia) ordaindu egin beharko dugu, eta ez bakarrik luxu zerga, bai eta langile klaseak, Estatu nazioen eta, UCD-ren "erreforma paktua"ren politikaren atzean, izkutaturiko sistema kapitalistare arteko besarkada eta "Baketza"ren tresna izanez.

Hau guztionen truk, gobernu zentralaren eskuzabaltasunak, zenbait parlamentariren buru beroetan bakarrik esistitzen diren konpetentzia batzu eskaini dizkigu, Madrileko "rastrotan", Euskal Herriko langile eta herriko klaseen interes nazionalak eginiko salmenta justifikatu nahi dutenak.

Ondo, bada, posibilismoaren jokoa egin nahi duenak, zabalik dauka horretarako bidea; burjeseriearen interesak defendatu nahi dituenak, nahiz barruti autonomikoaren baretik egin, egin dezake, dudariz ez horretarako ba dago burjeseria, baina kontuz: Abertzaletasun" faltsu baten atzean hauen interesak, langileria eta herriarenekin nahasi nahi izateak, beren menpekotasuna finkatu eta iraunarezko, horrek izen zehatz bat dauda, eta zuek ba dakizue zein den.

Eta bukatzeko, gauzok eke gehiago ez nahastea eskatzen dugu; denok euskaldunak, horia bai, baina banku kontuetako zero kopuruaz neurturik, horixe baita azken batean, klase eta herri interesen gainetik, beste interes konkretu batzu defendatzera eroango gaituena.

KAFE  
NUKLEARRIK  
NAHI  
DUZUE...??



NUKLEARRA  
EZ  
ESKERRIK ASKO

# BA DUGU AUTONOMIATXO PAKTUA!



PNV eta UCD-ren arteko kontsentsuaz onartua izan da Moncloa-n (Jadanik paktutegi historikoa!) Autonomi Estatutu bat Hego Euskal Herriko hiru herrialderentzat. Hori dela eta, entzun ahal ukan ditugun eritziak modu guztietakoak izan dira. Batzuren-tzat, optimistenak edo guttiz konformatzen direnak, Estatutu honek frankismoaren behin betirako lurperatzea suposatzen du, Euskal Herriaren lorpen izugarria eta horren bidez eskuratuko dugun autonomia, urteetan zehar amesten izan duguna ei da, nahi genuen eten demokratikoa.

## KONSTITUZIOAREN SEME NAGUSIA

Ihazko Abenduaren 6an, Konstituzioa bozkatzera, Hego Euskal Herriko indar abertzaleak oro bat zetozen Konstituzioaren desegokitasunaz, eta ezetz edo abstentzioaren bidez erakutsi zen gaitzespen hura. Ondorioz,

Hegoaldeak ez zuen Espainol Konstituzioa onetsi. Gero, halabaina, Estatutuaren arazoa planteiatu delarik, argi eta garbi ikusi ahal ukan dugu PNV-ren abstentzioa eta EE-ren ezetza, baietz izkutuak izan zirela.

“Berrogei urte eta gero HAU” kontsigna ez dugu oraindik ahan-tzi. Oroituko zaretenez, “HAU” hura Konstituzioa zen, eta auto-determinazioa onartzen ez zigunez, zentralista, burjesa, monarkikoa, matxista, etab, etab, zenez gero, ezetz esan behar genion. Konstituzioa ez baitzen oligarkia frankistaren interesak segurtatu eta mantentzeko tresna bat baikik. Baina, hara! politikaren mirakuluak anitz dira eta Estatutu honena bat dugu. Konstituzioaren mugak zintzo zintzoki errespetatuz egin zen Gernikako Estatutua, herriak ezertan parterik hartu barik, eta duela urte bitako, ekainaren 15eko indar erlatzioaren arauera. Baina Konstitu-

zio burjes, neofrankista eta zentralistaren ondorio hutsa den Estatutua, ez da “HAU” bezain gaitzesgarria, aldiz, geure baitzik beroena eman behar omen diogu.

Honek guztionek zeredozertarako baliorik badu, panorama politiko nahasi hau argitzeko izango da. Konstituzioaren erreferenduan, PNV-ren abstentzioaz eta EE-ren ezetzaz, ez zegoen hain garbi frankismo erreformatua nortzuk onartzen zuten eta nortzuk ez. Estatutuaren erreferendua, berriz, biziki argiro geldituko da.

Urteetan zehar amesturiko autonomiaren eskuratzea dela pentsatzen du Moncloako Estatutuaren defendatzaile askok. Orduan, guk autonomia desberdina amesten izan dugula pentsatu beharko dugu derrigorrean. Bestela, gogora ekar ezazue, zeintzu izan diren gure errebindikapen nagusiak Franco bizirik zegoen garaitik:

Amnistia, "Nafarroa Euskadi Indar zapaltzaileen kanporatzea, autodeterminazioa, egoera diglosiko hau gainditzeko ahalmena lukeen elebitasun legea, Lemoizko zentralaren gelditzea, etab. Hauetarik zeintzu eskuratuko ditugu Estatutuaz?. Amesturiko autonomiarik ez, gure aldetik bederen.

### ETSIAIA GURE ALDE?

Nafarrek ez dute bozik eman ahal ukanen erreferenduan, eta hain zuzen, Nafarroa Estatututik at gelditu delako. Indar Zapaltzaileak ez dira hemendik joanen, polizia autonomoaren buruak FOP eta Espainol Harmadako ofizialak izanen dira (esanguratsua ez?). Langileentzat ere aurrerapen handia dela esan da Estatutu honetaz. Nik neuk, aurrerapen galant horik zeintzu izan daitezkeen ulertzen ez dudan artean, Del Burgo, Suarez, Fraga, Areilza, Olarra eta, langileen etsaiak barik, langilegoaren adiskideak bihurtu diratekeela pentsatu beharko dut, poz itzalez hartu baitute Estatutua. Eta gauza bera pentsa genezake, orain arte, geure kontraktatzat jotzen izan ditugun prentsa eta komunikabideetat: El Pais, Diario 16, El Correo Español (betidaniko abertzale ezaguna), Telebista etab, estatutuaren defentsa amorratua egiten ari dira eta. Hau da benetan panorama aldatzea gero!

Zeredozertaz, behintzat, denok gatzoz bat saltsa honetan, gelditu den Estatutua, urte bitako parlamentarismo eta politika "errealista" eta posibilistaren fruitu heldua dela, halegia. Baina politika bide horren bidez, gehiagorik ezin izan badute erdietsi, aitor dezatela, baina mesedez, bide horren efikazia frogatzeko, ez esan frankismoaren lurperatzea denik eta amesten izan dugun autonomia maila lortu dugunik.

### ERREFERENDUAREN ONDOREN

Hurrengo urratsa erreferendua izango da. Horretan ahalik eta baietarik masiboena batzen saiatuko dira. Eta horretarako, Estatutu horretatik etorriko omen zaizkigun onura hipotetikoetat liru-

ratu eta ilusionatu beharko gaituzte. Nahiz eta kanpaina batera egin ez, baietzaren guri berean, UCD, CD, PNV, PSOE, PCE, PTE, EE eta ESEI ikusiko ditugu. Beste aldean, oposiziozko politika baten bidez, egiazko aldatetarako eskuratzea posible dela uste dutenak, eta duela gutti arte, beste taldeko alderdi askok ere demokrazi kondizio minimotzat jotzen zituzten erreibindikabek berak oraindik eskatzen dituztenak.

Urriari, onetsia izanen da Vascongadas-en Estatutua; agian, ez bere defendatzaileek (gobernu zentrala barne) espero duten gehiengo handiz, baina onetsia. Desliluramendua, gero etor daiteke. Zeren, nork sinets dezake egiazki, bide horretatik Amnistiarik izanen denik? Iparraldean, errefuxiatuen kontrako atentatuak etengabe jarraitzen dira, eta FOP-ak bertan edukiko ditugunez gero, beharbada, Amnistia barik, ez Soriakoa, baina bai Arabako Langraesko presondegi ederra, gero eta beteago joan daiteke, Estatutu, Euskal Gobernu eta guzti. Eta errepresioa mantenduko delarik, normala izango da orduan ere, guztiz normala, "demokrazia" berria onartzen ez duten erakundeak beren burrukan jarraitzea.

Euskal Gobernu bat izango dugu eta interesgarria izanen da, zapalkuntzaren aurrean, noren alde definitzen den ikustea. Zapaltzaileen kontra ala alde, errepresioari bere bedeinkapena edo, berdin litzatekeena, isiltasuna eskainiz?. Ez ote zaizkigu, Euskal Gobernuaren graziaz, herri-honen interesen alde koherentekien burrukatu direnak, aurrerantzean terrorista eta herriaren etsai ofizialak bilakatuko?

Hau guztiau politika fikzio hutsa izan daiteke, noski, eta oker bagaude, geu ere poztuko gara horrela dela egiaztatzean, baina bitartean, hurrengo Euskal Gobernuaren alderdi nagusia izanen den PNV-ren eskuineratzea, gero eta nabariagoa da. Urriaren 28ko manifestazio hura, neokarlismo-ranzko prozesuaren lehen urratsa baizik ez zen izan. Hau idazten ari naizelarik, PNV-k ez du oraindik Pantu-ren asasinaketaz inolako protestarik kaleratu. Sintoma-



tikoa deritzot. EAJ-k ez du Lemoizko zentrala geldiarazi nahi eta denok dakigu zelako interes "herrikojak" dabilzan asuntu horretan. Oligarkiaren interesen garantizatzaile eta gestiozile bihurtzen ari da. Ai Ukronia!

J.L.L.

# Iparraldean "DOSSIER EUSKADI"?



"Dossier Euskadi" izenburu honekin "Sud-Ouest" eskuineko egunkaria hasi zaigu euskaldunon arazoetaz hitzegiten. Hots, urteetan zehar "dossier" bat gehiago eta bistan dena, euskaldunotaz gezurra ugariago.

Honela, Christian Bombèdiac, Baionako idazle nagusiak dio "Le problème Basque est surtout une affaire espagnole mais il devient peu à peu une préoccupation française". Arren, azkenean Frantses eskuinak ere aitortzen du: Euskal problemak Frantzia ere ukitzen duela. Baina gizon hau oraino urrunago ausartzen da eta beronek aitortzen digu guziok dakigun berri latza " Paris a jugé opportun de se rapprocher de Madrid mais de se fait, le gouvernement français a aussi pénétré dans les méandres du difficile problème basque" Parise eta Madrile elkarganatu zaizkigu. Bai, hori ba genekien, zoritxarrez ongi ikasia, ongi senditua eta ongi ulertua. Ez ote dauzkagu hor, ezkontza horren lekuko, zaurituak eta hilak: Argala, Peixoto, Larrañaga, Agurtzane, Gomez Albarez.

—Berrehun abertzalek lagundu dute Gomez militante anaia mugaraino. Bihotza tinki eta arraildurik zenbat abertzaleren gorputz osoa ikaratzan zuten haserrearen izerdi hotzak? Zenbatek zuten ukomiloa tinkatzen eta hortzak harraskatzen?... Joan den larunbatean pertsona bakoitzak (ekainaren 30ean) ba zekien zergatik zebilen Baionako karrikan, zergatik zainak gogor eta hatsa heretsi zegoen CRS-en aitzinean. Benetan, guziek ba zekiten Euskadirentzat eta gudari lagunentzat zela.



Igandean berriz, Baionako suprefetexea lehegailu batek zapartarazi du Jaun suprefeta hiltzeko arriskuan? Oi, zer eskaldalua, zer makurra! Gizagaizo triste!..Biharamunean berean "Sud Ouest"ek zioen letra haundiz eta hirugarren horrialdean " La violence passe la frontière". Alta Sud-Ouest-ekoek ba dakite bortizkeriak aspaldi pasatua duela muga, baina hara, orain arte eskuinekoei esker zaigu honaratu, eta bistan da, horrelakorik ez zen esan behar. Aldiz, "separatisten" bortizkeria, hori bai, hori esan behar da eta letra haundiz idatzirik. Alderantziz, Argalaren hiltzea ez zuen inork aipatu "gure" radio telebista nazionalean, Gomez-ena ere ez eta beste zenbait dira ixilean gelditu direnak...

Eskuina dabil Iparraldean, eskuinak hiltzen dizkigu gure gudariak eta anar-

tean zer esaten digute frantses kazetalariek " La mort du militant basque tué en pleine rue a Bayonne, le 25 juin, est dans l'impasse". Arren, frantses polizia-ri zail eta ezinezko zaio euskal gudarien hiltzaileen harrapatzea. ..Inondik ere!

Azken egunotan, Bernard Maric, kostaldeko R.P.R deputatuak solasaldi bat ukan du barneko ministrariarekin eta frantses irratiek zioten Madrilerateko trenaren matrailatzea Iparreko talde batak egin zuela.

Izan daiteke bestela? Edo behar bada nahi lukete egon gaitezen eskuak estekan eta ahoa zabalik gure hiltzearen zain. Bortizkeriak jauzi bat gorago egin du Iparraldean baina ez ahal da hori marka oraingo bizi garela?... Eta bizi nahi.

M.L. UHAITZE.





Oraingotan Juan Lopategiri tokatu zaio espainol eta frantses gobernuen arteko adiskidatzearen biktima izatea. Ihazko udatik hasita, Iparrandean asasinatu dituzten euskal errefuxiatuen zerrenda atengabeki ari da luzeagotzen. Denok dakigu ondo, Pantu ez dela, zoritxarrez, azkena izango.

Bitartean, Hegoaldeko alderdirik handiena, bakezaleena, beste batzutan, giza bizitzaren defentsan jo eta ke ari ohi izan zaiguna, ixil-ixilik gelditu da, Lopategirena giza bizitzarik ez bailitzan. Errefuxiatuen eskubideen aldeko kanpainan sarturik gaudelarik, frantses turistei esaten zaiena esanen genieke horiei ere bai: "votre silence, votre complicité".



Honelako martxan, espainol gobernuak, ez dio Giscard-i extradizio gehiagorik eskatu behar izango. Sistema horretaz dena da errazago, bestela judizioak, iskanbilak, mobilizazioak etab, ez, hobe da honela, sinpleago da. Gero frantses poliziek ezin ukanen dute atentatuaren egilerik harrapatu. Behin ere ez dute lortu.

ekainaren 25ean, Enrique  
Gomez Euskal gudaria, hamar  
tiroz jo dute Baionan,  
Pannecau karrikan.  
Haren Omenez.

Arratseko bederatziak t'erdia dira,  
argi guziak, horxe, zintzilik daude,  
dirdiran.

Hobietako argi faltsu,  
harpeetako hilen argi.  
Hilargi edo hilen argi,  
jendeen ilusio,  
nahiago nituzke, nire herriko lagunak berriz ikusi,  
papo hoztu honi kontra besarkan atxiki.  
Jendea dago, jendea dabil, so, kalkan.  
Pikak, ez du ikusten arranoa barandan,  
Baionako karrikan.

Egunaren argia estaltzera doa,  
eguzki beroaren sua, bera,  
harroinezko mendietan behera,  
harroinean sartuz hurtzen ari da.  
Honela noa,  
jakin gabe,  
gaueko orduan,  
nire orduan.  
Hotz eta bakarrik,  
itsu eta galdurik,  
badatorkiotan hiltzeari,  
urren, nabil orain,  
ordu latzari.  
Hotz,  
bihotza hotz,  
bizia daukat, horxe,  
motz.

Zure begiak, itsasoa bezala,  
urdin eta zuriak.  
Itsasoa bezala,  
mila xorta, mila bizi, mila jauzi;

zekarzkidaten esperantza guziak,  
karrika bazter honetan,  
lohian eta tuan,  
erauntsiaren urean,  
badoaz bat batean,  
gizarte zikin honen errekan.  
Biziari zoakion ahoa,  
frutu joria,  
horrenbeste hitz gozoen iturria.  
Ondikotz,  
madari guziak larrazkenean jaten badira,  
zuri ta niri, ez zaigu gertatu horrela.  
Zure irria, irri alaia, irri tristea,  
eta, hi, HERRIA,  
nire esku langileek zizelkatu harria.  
HARRI,  
ez hadin geldi hori,  
hiri HERRI,  
Harri eta Herri,  
hiri, bizi hau dena,  
odol eta haragi gorri,  
doala,  
bakar bakarrik, hiri.

Hamar tiroren artetik,  
hamar zauriren barnetik,  
Aho hetsi batetik,  
aurpegi aztaparkatu,  
bihotz urratu honetatik,  
azken hats ezinean,  
azken garrasi ezinean,  
nik, orain,  
arratseko bederatziak t'erditan,  
Baionako karrikan,  
odol eta HERRI,  
HARRI eta zauri,  
zaituztet ikusten,  
zaituztet maitatzen,  
beti.

M.L.UHAITZE

# EUSKAL ERRESISTENTZIA ZIBILAKO EEZ



Ikastaro hutsez eta "Bai Euskarari" faltsuetaz ez dugu geure egoera konponduko.  
EEZ sortu behar dugu benetan

Jende askori asmo honen berri eman eta gero, publikoki azaltzeari eritzi diot egokiena, egoera, aurreko zenbaki batetan genioenez, ez baita leunago, latz latza baizik. Eta ba dirudi hau dela gure patua, intzirika ibiltzea beti negarranpuluaz ezer lortzen ez dela jakinaren gainean egonda, honetaz berau izanen dela berba egiten duguneko azkenengo abagadunea, hori proposatu diot behintzat neure buruari, norberak eta herriek ere beren heldugabekotasunaren haroari itxitura bat eman beharrean baitaude, eta halaber euskaldunen fabore aurrerantzean egiten ditugunak osterantzekoak izanen direla sinetsiz, hor goion jarri dudan izenburuaz bataitu gura nuke oraindik sorkizun dugun elkargoa: EUSKAL ERRESISTENTZIA ZIBILA.

Zeren, jaun-andreok, gutiengo bat baikara!!! Euskaldunok gutiengo bat gara Euskal Herrian. Are gehiago, gutiengo za-

paldu bat. Eta geure buruen defentsa antolatu behar dugu albait lasterren. Gutien-go bat garelako zenbakiz. Gutien-go bat garelako ahalbide kulturalaz. Gutien-go bat garelako gure hizkuntza kultura unibertsalaren mezutzaile izan daitekeen neurrian. Eta orobat alderdi politikoetan, gure alde omen duaden abertzaleetan, eta, zer esanik ez, hain alde bide ez dauden espainolista-frantsesistetan. Gutien-go bat gara prentsan, **Egin** eta **Deia**-n, eta izan ere ez gara bestean, ez **Gaceta**-n edo **Sub-Questen**, ez eta **Muga**-n ere. Gutien-go bat gara, ia ikustezina "Euzkadi"-n, eta alderdi guztien aldizkarietan. Eta seguru asko gutiengo bihurtuko gaituzte telebisita berrian, harik eta esan digutenean Irlanda dutela eredu, hortz eta letaginez ez baditugu geure eskubideak defendatzen. Horregatik, euskaldun irauan gura dugulako geure defentsa eratu eta apailatu behar dugu, baina garenaren kontzientzia edukita. Gezurra delako **abertzale** = **eus-**

**kaltzale** delako berdinketa. Gezurra delako euskaltzale ez den abertzaleak lagunduko gaituela. Gezurra delako, gutiengo eskubide eta zuzenak errespetatu, geure buruaren defentsapidea antolatu gabe izan gaitezkeela beldurtzeke euskaldun betiko.

Guzti horren kariaz delako elkarte hori sortu behar dugula uste dut, eta lagunen batek oso izen bitxia duela esan badit ere, erresistentzian eta zibilki arituko garelako erantzun behar diot asmatu dugula izena. Arazoa oso argi baitago, baina kebidetz eta fintasunaz jo behar dugu aurrera eta euskaldunon ez direnen eskubideak zapaldu gabe. Egin dagigun, honetaz gero hizkuntza-kontuetan zaharregiak izateagatik, 30 urte gorakoak, gure hizkuntza ikasiko ez duten herriko erdaldunak, edo eta aspaldian erdaldun izan diren eskualdeko jendeak, hala nola, Nafarroako Erribera edo Bizkaiko Enkarterria eta


Arabako Errioxa. Horrez gain abertzaleen arloa konkistatzeko asko falta zaigularik, oraingoz abertzaleen artean lan egitea bakarrik proposatuko nuke, hots, eta elkar uler dezagun, **P.N.V., H.B. eta E.E.**-ren kontra. Esate baterako, mitinetan atralakak sortuz, alderdi bakoitzaren mitinetan alderdi horren kideak izanik iskanbilaren sortzaileak, ideien kontra jo nahi ez dela erakustearren. Horrela, bada, halako mitin batetan, eta oraingoz ere herri euskaldunetan bakarrik, hamar minutu igaroz gero euskararik entzun gabe, mi-

nutubetez txistuka eta uhuka has, beste hamar minutu horrela jarraitzekotan eta hiru minutuz gauza bera egitea, edo eta **"Arratsaldeon denori. En este momento..."** hasten direnei era berean. Jakina, bakebidez esan dugunez, ordenazaintzaileen kolpeak jasateko eta jasoteko egon behar da prest. Beste bat: hilabete bitako epea emanez eta data aldez aurretik aldarrikaturik, halako astean hainbeste euskara ez badute sartzen, **Egin, Deia, Punto y Hora** e.a.koei boikota egitea bihi bat ere ez erosiz...

Baina garrantzitsuena zera litzateke portaera-arautegi baketsu bat osatzea atakeriarik egin ez dezagun eta gure lana ahal den emankorrena izan dadin. Kasu batez, euskararik ez dakiela modu onean dioskunari bertan behera erdaraz eginez, edo eta halako toki eta bulego ofizialetan aurretik pentsaturiko baldintzetan euskaraz eginez, edo funtzionari euskaldunak egotea derrigortuz.

Idea hor dago. Nahi duenak har bezal Ni prest nago.

Andolin Eguzkitza



## EUSKARA HILTZORIAN

Zer ikusi  
hura ikasi.  
Hitzak grabatu,  
burua arrotzu,  
euskara uxatu.

Atzo eskolan  
euskaraz ari zenari:  
jipoiak,  
eraztunak,  
eta mihi azpitik  
konpasaren eztena.

Gaur gure eskoletan baino  
(txorabila egin zait  
erortzera noa)  
euskara gehiago egiten da Guadalajaran.

"Atzo ikusi nizun zuri".

Zer ikusi zenidan?

Zuk ikusi zenuen:

eskola  
zinema  
telebista.

Eskola,  
zinema,  
telebista,  
foto nobela,  
aiuntamentuko paperak,  
asanbladak,  
mitinak,  
makinako parteak,  
denak inperialismoaren hizkuntzan igari.

Gaur bertan  
biharko utzi gabe  
sar dezagun  
euskara  
telebistan  
zineman  
eta eskola guztiak bihurtu ditzagun ikastola.

Euskara habil igari onda hertziarretan!  
Euskara azal hadi zineman!  
Euskara sar hadi eskolan!  
Euskara habil abertzaleen ezpainetan! ASTAITZ

Donostiako Kolegio frantsesean ikasketak bukatu dituzten gazte batzuekin, Mayorcara joan ginen uztailaren 2an.

Adarra ondo jo zigun askok irten baino lehen: "ea bonba bat jartzen dizueten..." Mayorcara heltzean, adar jotzeak beste bide bat hartu zuen: "Donostiarak? bonba bat jartzera etorri zarete: Hau dena txantxetan, baina..."

#### BONBA MEHATXUA

Egun batean, gure izar bakardun hotelean lasai afaltzen ari ginela, bertako jabea laxterka sartu zitzaigun argazkian ikusten duzuen jangelara: "Desalojen el hotel inmediatamente, el personal también, dentro de veinte minutos estallará una bomba!"



Ez zen beharrezkoa izan errepikatzea, jendea korrika irten zen. Geletara gauzen bila joateko denborarik ere ez ziguten eman, epea oso laburra baitzen!

Guztiok kalera irten ginen. Aleman pila zegoen eta gehienak lasai egon ziren leherketarekin zain. Baina, epea bete zen eta han ez zen ezer gertatzen.

#### BONBA BILA

Poliziak, hotelera sartzeko erabakia hartu zuen, ea zerbait aurkitzen zuten edo. Bilaketa errazteko, langileei laguntza eskatu zieten hotela hobekiago ezagutzen zutelakoan. Hauek ordea, ezetz borobil batez erantzun zieten, ez zirela sartuko bezeroak kanpoan geratzen ziren bitartean, segurtasun osoa eskatzen zutela hotelerrantz abiatzeko.

Hala eta guztiz ere, bi sartu ziren poliziek batera, jantokiko nagusia eta bargizon bat. Detektagailuz ibili ziren gela guztiak arakatzeko, baina ez zuten ezer aurkitu. Bilakuntzan ari zirela, bost aleman ikusi genituen hoteletik irteten, andre bat bere bi alabekin eta bikote bat, bi neskak negarrez zetozen, ez omen ziren ezertaz jabetu... eskerrak ez zegoela bonbarik.

Beldurra oraindik alde batera utzi gabe, sartu ginen denok eta hoteleko langileko langileak gurekin batera.

# TURISMOARI BONBAK

## Bertako langile batzuren eritziak

Hanetako batek, andaluziarra bera, poliziarekin sartu ziren bi lankideei "sevillana" hau eskaini zizkien:

*Han puesto una bomba en el "Torre /Arenal"*

*ahí van el metre y Juan.*

*Ahí van el metre y Juan que se las pelan buscando el artefacto como fieras.*

*Buscando el artefacto como fieras, suben /las escaleras*

*y se ponen a investigar en las bañeras.*

*Después de realizar varias pesquisas no dan con la bomba dicha.*

*Como son unos detectives muy agudos, llegan a la conclusión*

*que no hay artefacto ninguno.*

#### LANGILEEN ERITZIAK

Une hauk pasa ondoren, zera bururatu zitzaidan: zer pentsatuko ote dute turismoaren aurkako ekintza hauetaz beren bizibidea sektore honetan duten langileek? Eta galdera batzu egin nizkien:

**Anaitasuna:** Zer deritzezue atentatu hauei?

— Ez dakit zein helburuz egiten dituzten. Langileontzat kaltegarria da; guri, hau kentzen badigute, langabezia etorriko zaigu.





- Beren etxetan jarri beharko lituzkete.
- Uste dut Frantziako hilketak mende-  
katzeko egiten dituztela, baina hara  
datorren jendeak ez du errurik.
- Ez zaizkit ondo iruditzen.

**A.: Zer deritzozue ETA-ri eta bere ekin-  
tza orokorrari?**

- Lehengo ondo iruditzen zait, inde-  
pendentziaren alde egiten zuten borroka,  
bainan orain aspergarri samarrak jarri  
dira.
- Lehen ondo, orain pasa egiten dira.
- Niretzat ez dira terroristak, herriaren  
alde jokatzeko dute.
- Beren arrazoriak izango dituzte...

**A.: Nola ikusten duzue Euskal Herria?**

- Atsegina.
- Beste edozein herri bezala.
- Magnifiko!
- Ondo.

**A.: Zuen eritziz, Euskal Herriak Esta-  
tuko beste herrien aurka jokatzeko al-  
du?**

- Herrien kontra ez, gobernuaren kon-  
tra!
- Ez dut uste beste herrien aurkako in-  
teresik duenik.
- Ez. Berea defendatzen du.
- Ez.

Hemen erantzun duten lau langile  
hauk, kanpotik joan dira Mayorcara lan  
bila, beren herrietan ez zutelako. Ez  
nituen aukeratu; beraiekin hitzegin ba-  
nuen, jangelan zeudenez ezagutu nituela-  
ko izan zen.

Konklusioa, gureganako jarrera ben-  
etan positibo eta zabal bat zutela izan zen  
niretzat. Aurkako eritziak ematen zituz-  
tenean ere, ez nuen beraiengan inongo  
erasorik nabaritu, eta hori beren lanpos-  
tuak arriskuan ikusten zituztela...

#### **TURISMOAK EZARTZEN DUEN MERKATUA**

Beste alde batetik begiratu ez egera,  
benetan penagarria da, burjeseriak toki  
hauk nola hustiratzen dituen egiaztatzea.

"El Arenal" konkretuki, Palma-tik  
hamaika kilometrotara dagoen hondartza,  
guztiz merkaturatuta dago. Hau, hotelak,  
diskategiak, deundak, kafetegiak... beste-  
rik ez da ikusten. Entzuten den musika:  
uda-exitoak eta "Que viva España"; es-  
kaintzen duten folklorea: "Flamenco"  
txarra; dena, oso "Typical" baina Ma-  
yorcan zaudenez ez zara konturatzen.

Zerbait ikusteko, toki hauetatik alde  
egin behar da eta orduan, leku zoraga-  
rriak aurkitzen dira benetan (Valde-  
mesa, La Calolna, etab.).

Itziar Urtasun



# EL IMPARCIAL

Director: Jesús Pérez-Varela

DIARIO LIBRE E INDEPENDIENTE

N.º 510 ● Madrid, jueves 2 de agosto de 1979 ● Teléfono: 204 66 44 ● 32 páginas ● 20 pesetas

Que explique Garaicoechea sus declaraciones  
al «New York Times»

## ¿PIDIO AMNISTIA?

(para los terroristas vascos)



Iamames:

«Creo que ya he habido demasiadas en España»



Fraga:

«Total irresponsabilidad»



Attard:

«La mejor medida es que el pueblo vasco ratifique el estatuto»



Blas Pinar:

«Buen precedente para poner en marcha el estatuto»

La pregunta que nos hacemos nosotros, que se hacen ustedes, es esta: ¿Pidió de verdad amnistía al señor Garaicoechea para los terroristas vascos? El líder del PNV, artífice del estatuto vasco, ha hecho unas declaraciones al diario americano «New York Times» que pueden levantar una enorme polémica en este país. Radio Nacional lo dice en uno de sus servicios informativos sin más rodeos: Garaicoechea pidió amnistía para los terroristas. Después hubo alguna rectificación. Al parecer, el señor Garaicoechea había dicho solamente que lo que había que hacer era ir a la reconculación en el pueblo vasco. «No hay ya en este slogan de las asociaciones pro amnistía del País Vasco para conseguirlo? De cualquier forma, el que tiene que dar todo tipo de explicaciones, el que tiene que mejorar es el propio Garaicoechea. Ayer, el señor Garaicoechea no quiso mejorar. Bien lo sabe EL IMPARCIAL, que lo llamó reiteradamente, tanto a su casa como al Consejo General Vasco, y siempre sin resultado. En su casa decían: «Está en el Consejo.» En el Consejo decían: «Está en casa.»

Los «buenos»  
y los  
«malos»  
de ETA

Importante artículo de Andrés de la Oliva Santos, catedrático de Derecho Procesal, en página 3.

Ciudad sanitaria La Paz

«Ministro: Veinte millones de cucarachas te dan la bienvenida...»

«MINISTRO: Veinte millones de cucarachas te dan la bienvenida.» Con este slogan recibieron los familiares de los enfermos de la ciudad sanitaria La Paz al señor ministro. La Paz es hoy uno de los centros más importantes de Europa en especialidades médicas, pero el centro sanitario tiene muchos problemas tanto estructurales como laborales. (Lo cuenta César de Navascués en págs. 16 y 17)

# GOBERNUA ETA BERE GORPUTZ ERREPRESIBOAK

Estatuko prentsak, sasiezkeriarrena barne, euskaldun guztioi eta batez ere iraultzaileoi, gure begiek egunero ukatzen digutena ikusarazi nahi digu. Ez dagoen indar errepresiboen demokratizapen bat ikusarazi nahi digute. Horretarako edozein trikimailu darabilte, sarritan Euskal Herria iraintzera heldurik.

Baina ez da hori UCDren gobernuan, bere gorputz errepresiboetan eta beste estamentu ofizialetan jadanik faxismorik ez dagoena sinestarazteko erarik aproposa. Arrazoiak nahi ditugu, ez irainak.

Euskal iraultzaile erakunde batek kazetari bat exekutatzen duenean, alderdi guztiek (ezkerrekoek barne, eta beharbada hauk indar handiagoz) eta Estatuko prentsa guztiak jantziak urratzen dituzte, "espresio askatasunaren" aurkako atentatuaren aurrean. Beren uste-tan, espresio askatasunaren aurkako atentatua da eta ez inolaz ere, prentsa faxistaren plataformaz baliatuz, ideia zabalkunderako plataforma honetara heltzerik ez zutenak iraindu eta kalumniazteko zerbiltzan indibiduo baten aurkakoa. Eta

Madriren, militarren exekuzioak gertaturikoan Barne Ministeritzak, erreibindikapen komunikatuaren prentsaratzea debekatu zuenean, ez zuen inork jantzirik urratu, inork ez zuen hor espresio askatasunaren aurkako atentaturik ikusi. Dena zen demokrazia eta terrorismoaren aurkako burruka. Jaunak, hori, inoren begian lastoa ikusi eta norberarenean ez ikustea da. Ez dagigun pentsa itxuragabetu eta iraintzeko bakarrik erabili, baizik eta objektiboki informatzeko.

Eta informazioa balitz, gertatze

dena, alderdi sasiezkerkiar guzti horiek eta estatuko prentsa aurrerakoia, hain aipatua den lege antiterroristaren benetako esan nahiaz informatuko gintuzketen, nahiz eta bere ondorioak eta kondizio horietan eroaniko burrukaz ohituak. Langile autodeituriko alderdiek, benetan hori balira, ez zuketan jokoa egingo ez eta mementu hauetan, burjesiaren posizio hegemonikoa finkatzeko asmo bakarra duten eliteak izango.

Ulertezinak dira alderdi hauen ixiltasunak ere, UCD gobernuaren politika terrorista faxistaren aurrean. Azken bi urte hauetan, ezkerreko alderdiek baturiko sasidemokrazia apurkak ez dira UCD-ren politikari kontzesioak, herritar lorpenak baizik. Eta herriak, nahiz eta alderdi hauek ez duten nahi ikusi ez entzun, botere politikoa, harmek indartua denean soilik dela boterea daki. Eta batez ere, faxistek bakarrik mesedagarri zaizkien artean onartuko dituztela urnak. Horregatik berorregatik da ulertezina alderdien isiltasuna.

Egiten dugun analisi hutsik funtsezkoena zera da: Gaurko egoera politikoa analizatzerakoan, faxismo exenplu gisan Txile... eta beste diktadura batzu hartu; baina faxismoak ere bere eboluzioa ukan du eta zilegi litzateke RFA edo Italia faxismo aurreratuaren adibide tipikoak direla esatea. Edozein banderaren ostean izkutatzen den faxismoa, eta mementu hauetan Europan eta batez ere Espainian, demokraziaren banderapean; eta terrorismoaren kontrako lemapean, kaleetan zehar iraultzaileak erhaltzen joateko askatasuna lortzen du. Errepresioaren gehikuntza politika batez, polizia municipalak, GC eta PA-rekin parekatu nahi ditu, eta terrorismoaren aurkako unitate bereziak sortu, asasinatzeko bereziki prestatuak. Ia bere ekintza guztietan hilak uzten dituzten unitateak, jende errugabea barne. Nahikoa da manifestatzaileen bat hiltzea, komandante bat teniente koronela goratua izateko (logika faxistarik garbienean). Guztiz logiko eta beharrezko ikusten da, bake egarri dagoen Euskal Herrian, garai frankistako torturatzaile sofistikatuenetariko bat izatea polizi burua. Eta alderdi "demokratikoek", hala nola prentsa "askeak" ez dute ikusten. Baina hau ez da hasiera baizik.

Gobernuaren presidenteorde lehena den Gutierrez Melladok USARA eginiko bisitaz eta bertan ikusirik militar (imperialista) jiteko akto, kurtsilo, irakaspen,... eta abarrez, ez ditu inork eskuak burura errotan, nahiz eta bitartean, prentsarik "demokratikoena" ere jantziak urratzen hasten den, ETAKo militanteak Argelian entrenatzen ote diren susmoz. Martin Villak, errepresioaren europar modeloa den gobernu faxista daukan estatua bisitatzen du, eta ez da ezer gertatzen. Eta honantzean. oroitgarri bezala, "Siemens" zere-

## La tribuna de EL IMPARCIAL

... Señores políticos, ni una arenga más contra el terrorismo mientras no protagonicen algunos hechos significativos contra los terroristas que tienen al lado

# LOS «BUENOS» Y LOS «MALOS» DE ETA

En unas declaraciones publicadas en el «New York Times»

# Garaicoechea pide amnistía (para los presos de ETA)



bro elektroniko bat dakar, 4.500 milioi ordainduarik, terrorismoaren aurkako burrukan lagun dieszaion.

Esana zitzaigun hala ere, amnistiarekin, poliziaren fitxero guztiak desagertaraziakango zirela, baina ez ez daudela hutsik dakusagu, baizik eta alderantziz, oraindik handiagoak direla eta arazo hauetan tipikoa den perfekzio faxistarekin funtzionatzen dutela. Eta hau guztiau gutti bailitza, orain zerebro elektroniko eta guzti. Uste dut berria berezko mentatzen dela.

Eta honela, espainiar estatuko politika, faxismo gisan karakterizatzen duten hainbat eta hainbat gauza, aipatzen ahal uka-

nen genituzke.

Guzti horregatik, ez alderdi guzti horiek ez eta faxismoaren eskutan harma gisa dagoen prentsak, erregela baieztatzen duen salbuespen ohorezkoren bat salbu, ez dute lortuko esistitzen ez den demokrazia batez sinistaraztea. Problemaaren soluzio bakarra, aparatua estatua guztia lurperatzen datza.

Amaitzeko, alderdi politiko ezkeriarrei esatea: zuek zarete faxismoaren tapakia; gobernuari: zuek zarete terroristak; eta prentsari: zuek zarete UCDren gobernu faxistaren harmarik arriskutsuenetarikoak.

Galtzagorri

# MENESTRA IZUGARRIA

*"Txoko-Eder" jatetxean menestra izugarriak ematen dituzte Euskal Hiztegi Modernoa. 297 horrialdea*

*Menestra hitzaren esannahia ondo azaltzearen nekez aukera zezakeeten delako hiztegiaren egileek, "Txoko-eder" eko menestra, Larrabetzuko bazkari freskuez osatua, "izugarria" baita da. Menestra alde batera utzita, gaur ere Euskal Kulturaren ghettoirik irten saiatzen ari diren (garen?) lau katurentzat aparteko garrantzia dauka Txoko-eder jatetxeak. Zenbat euskarazko hitzalditxo, bertso eta abesti ez duten entzun jatetxea horretako lau hormek! Zinez, egun batetan Francopeko Euskal Kulturaren historia idatz dadinean txoko honek lerro bat baino gehiago eskatuko du.*



Bilboko Barrenkale Barrenako 6an gaude: "Txoko-eder"ean.

Andone Gaztelu, Juli Gaztelu eta Anaitasunaren morroi leial hau gaude.

Andonek.- Zortzi ahizpak hasi ginen lanean hemen, "traspaso" a hartu genuenean...

Julik.- Ez: zazpi. Danak, Mertxe-erizaina izan zena izan ezik.

Anaitasunak.- Eta orain?

J.: Orain Lidi, Jonagaz ezkondua, eta Andone eta biok, "biorrotxook" geratzen gara. (Lekuaz beraz mintza dakizkigu eskatu diet).

A.: Antzina "Bar-café Linaza" zen hemen, baina 50 urte darama jatetxetzat. Guk hartu genuenerako "choco-eder" zeritzan. Uribe Etxebarriaren alarguntsarena zen. Jakina "ch"z zeraman izena euskal izenik jasatzen ez zenez orduan. Guk berriz, izena bere euskal ortografiaren lehenengoratu egin genuen, beldur eta guzti.

J.: Geroztik bai euskal eta bai kanpotar artista, intelektuak askoren pausalekua izan da.

A.: Nor izan zen lehenengoa?

A.: Lehenengoa... lehenengoa Antonio Otaño, "Illescas" erakustokia jarri zuena izan zen. Berak ekarri zizun jantokiko ormeetan eskegi genituen koadroen lehenengoa ere bai. Stephanek, alemandar margolariak eginda.

A.: Eta gaintzekoak?

J.: Barceló, Garcia Ergüin-haren anaia bat gure koinatua da -Pepe Caballero andaluziarra Enzo Cini- Enzo honi sukaldetan laguntzea gustatzen zitzaion eta patatak zuritzen aritu ohi zen gugaz-Mugerza, Mendiburu, Antonio Oteiza (Jorgeren anaia bat) Mari Paz Jimenez, Juan Carlos Eguillor komikilaria, Aguilar Alfá (honek Bilboko Museoan ba du obrarik), Ortiz Alfau...

A.: Oso adiskide onak dituzuela bistan dago, baina ondo ezagutzen zaituztegunok ba dakigu hoberenetako bat Jorge Oteiza zaizuela. Noizdanik eta nola?

A.: Hamar urte dateke elkar dazagugula...

J.: Arantzazu-n egin genuen topo berare-

kin, Jose Luis Etxegaraiaren bitartez hain zuzen... Aste Santu batetan. Apostoluak egiten ari zela izan zen.

A.-H.: Eta geroztik askotan pasatu da hemendik.

Arantzazu-n bigarren aldiz elkar ikusi genuenean, berak egindako Birjina guri erakutsiz, Euskadiko amen omenez, hotz Euskal Herriko seme-alabarik galdu oherrez egin zuela adierazi zigun.

"Mis queridas brujas sorgiñas" deitu gintuen behin baino gehiagotan...

A.: Zer zela eta...?

A.: Ah: ez dakit. Berak jakingo du...

A.: Oker ez badago besteak beste Aste Santuan fraideen musika goxoa entzutearren joaten zineten Arantzazura zuek, baina zer hau abestean makalak ez zaretela gauza jakina da...

A.: Ez dakit... Hala diote...

A.: Baita Londres-eko jatetxe turkiar batetan zuek hirurok jendea txundituta utzi zenutela abestuz... Nondik dator-kizue kantuzaleatasuna?

J.: Aita amagandik: asko kantatzen zen etxean. Aitak Iparragirrenak batez ere politto abesten zituen.

A.: Musikaren arloan ohargabe sartu garen zuek gero...

J.: Musikariak... asko eta asko etortzen da honera. Lehen "Ez dok amairu" taldekoak sarritan biltzen ziren honera. Orain Mikel Laboa, Gorka Knörr, L. Iriondo, X. Lete, Zorion Eguillor, Artze anaia, Andoni Arregi abesbatz zuzendaria, S. Antongo abesbatzarenak, Boni txistulari bikaina, Josu Loroño...

A.: Eta etortzeko den gure Marisa Ozaita klabejotzaile eta konposatzaile hoesetsua (erlojuari begira dio hau Andonek).

J.: Gainera gure pianoa afinatuta zegoenean, Alicia de la Rosa pianojotzaile espainolak...

A.: Katalandarrak...

J.: Bai, katalandarrak, jo ohi zuen hementxe, eta berdin Atxukarrok eta ama-zteak. Jose Francok ere bai...

A.: Gero, Venezuelako Biteti, kitarrari-jotzaile bera eta Alidio Diaz ere kontzertu ematera datozenean gure etxera etortzen dira bazkaltzera.

A.: Eta zer diostatue euskal idazleetaz?

A.: Euskaltzaindia bera Aita Villasante eta guzti etortzen zen hona.

J.: Aresti ere oso ondo genezaguen...

A.: Xabier Kintana...

J.: Xabierrek menua edo karta euskaratu egin zizun. Geu izan ginen menua euskaraz agertzean lehenengoak.

Berak ere Georgiatik itzuli eta hango unibersitateko irakasle euskaldun bat, Greta izenez, "ekarri" zizun.

A.: Eta asko eta asko: Arregi, Ibon Sarasola, Arantza Urretabizkaia, X. Gereño, Mikel Zarate izandakoa, Altuna...





J.: Gainera omenaldi ugari ospatu da hemen. Danak ez ditut gogoan: Jon Bilbaoena, Urcelay margolariarena, Martin de Ugaldearena.

A.: Azken horretan Martin bera ez zen etorri ahal izan eta emazte etorri zen "Galeria del Libro" k emandako / Zilarrezko laburua" hartzera.

J.: Mary Aguirrerena izan zen oso xelebre ere bai. Ogizko Mary Agirre bat ekarri egin zuten eta gero danok zati bana harturik jan egin genuen omenaldia eskaini izan zitzaion berbera.

A.: Euskal "munduan" hain sakonki sartuta zeundetenez ez duzue inoiz poliziarekin istilurik izan?

A.: Nolaz ez! 1975 ean ahizpa bat espetxeratu egin ziguten. Orduan bi hilabete edo oso larri eman genuen Julik eta biok, egunero etortzen baitzitzaizkigun polizia batzu, gu zirikatzen. Gainera telefonoz deika: "Os vamos a matar" esan ohi ziguten. Ez zen, egia esan, gauza berririk guretzat, gurasoengandik hasi, beti zanpatuta bizi izan baikara. Guda ostean murri-murri utzi gintuzten.

Gero, ahizpa kalean zegoela, hemen sukaldean bazkalondoko batetan geundela, bera detenitu zuten polizia berberak agertu zitzaizkigun bapatean.

Irten eta "qué pasa, majos?" Bisita egitera zetozela zioten. Orduan nik mesede bat eskatu egin nien, zera, handik aurrera polizia gehiagorik etor ez zedin gu gogaitzera. Etorri ohi zirenen deskribioa egindakoan, kontutan hartu egin bide zuten, berriro etorri ez ziren eta...

J.: Gero, ikurrina legeztatu zeneko, jarri egin genuen horko behatokia.

A.: Baina bigarren eguneko goizaldean kendu egin ziguten "ezezagun" batzuk.

J.: Hura zen atsekabe!

A.: Lehen kontatu nahi nizun gauza bat ahaztu zait. Entzun eta gero zeuek ikusiko duzue, jarri ala ez...

A.: Bota, badaezpada.

A.: Gau batetan, elurra ari zuela, Bastarretxea eta emaztea, Jose Luis Etxegarai eta Jorge Oteiza agertu ziren. "Ama Lur" ari zen filmatzen garai hartan eta Gernikatik zetozen oso pozik, Gernikako arbola filmatzetik, oso sekuentzia onak lortu omen zituzletako, elurteari eskerak.

Baina gero "censura" k debekatu egin zizkien elurra ari zueneko sekuentzia haik eta berriro filmatu behar izan zituzten, elur barik, noski. Gauza bitxiagorik...!

A.: Orain arte iraganaz egin dugu berba. Etorkizunari begira, jarraitzeko asmorik ote?

J.: Hala dirudi, askotan ez dago gure eskuetan erabakitzea...

A.: Jarraitu orduan, zuen menestra izugarriekin.

J.: Eta etxeko txistorrarekin, xigorkiekin(1)...

A.: Hala biz.

Borja Barandiaranek

*Handwritten signature or mark in the top right corner.*

# JATETXEAK

Betikoa du fama, eta ongi merezia gainera, Euskal Herriko gastronomiak. Izan ere, gure Herriko jatetxeetan bezala toki gutxitan jaten dela ez da bertokoen esan harroputza, kanpotarrena ere baizik, eta horrek bere objektibotasuna ematen dio hauziari.

Hala eta guztiz ere, hain sukaldari sonatuak garen euskaldunok gure kuzina kanpora begira, edo eta erdal begiez, egina dugula dirudi, oraindik oso gutxi baitira beren bezeroei menu-kartak, erdaraz batera, euskaraz ere agertzen dizkieten jatetxeak. Espainolez, ingelesez, frantsesez eta inoiz alemanez ere azalduko dizkizute, baina euskarazkoa eskatuz gero, jabeak, euskalduna izan arren, hala-holako irribarre errudunaz, ez duela, edo ez dakiela nola jarri euskaraz, erantzungo dizue, hori bai, euskal sukaldari on gisa, burua oso abertzalea dela aitorturik.

Gaur, ANAITASUNAREN horrialdeotan Bizkaiko jatetxe famatu batzuk euskaraz duen karta ongi hornitu bat argitaratzeari ematen diogu hasiera, berau laur haizetara zabaldu ondoren, hemendik aurrera, haizeaz bestaldetik bada ere, ezin sukaldarik euskaraz bere menua nola ipini ez dakielako atxakiarik atera ez diezagun. Ea ba!

Jal Eon

## PLATOS DE PRINCIPIO HASIERAKO PLATERAK

### CARNES

	HARAGI-OKELAK
Escalope . . . . .	Eskalopea
Filete a la plancha . . . . .	Okela xerra plantxan
Chuleta a la plancha . . . . .	Txuleta plantxan
Filete en salsa . . . . .	Okela-xerra saltsan
Carbonada de vaca . . . . .	Behikia ikatzetan
Rizos de vaca . . . . .	Behi-kirruak
Rosbif asado . . . . .	Roastbeef errea
Carne con tomate . . . . .	Okela tomateaz
Carne anisada . . . . .	Okela anisaz
Brazuelo de vaca asado . . . . .	Behi-besaki errea
Granadinas de vaca . . . . .	Behi-granadinak
Albóndigas en salsa . . . . .	Almandrongilak saltsan
Hamburguesas en salsa . . . . .	Hamburgesak saltsan
Pimientos rellenos . . . . .	Biper beteak
Pollo asado . . . . .	Oilasko errea
Pollo en salsa . . . . .	Oilasko saltsan
Pollo a la crema . . . . .	Oilasko kremaz
" al ajillo . . . . .	Oilasko baratxuritan
" a la inglesa . . . . .	Oilasko ingeles erara
" al vino tinto . . . . .	Oilasko ardo beltzetan
" en pepitoria . . . . .	Oilasko pepitorian
" al gratín . . . . .	Oilasko gratin erara
Muslos de pollo braseados . . . . .	Oilasko-hankak txingarretan
Conejo en salsa . . . . .	Untxea saltsan
Cordero a la vasca . . . . .	Artxo euskal erara
" en menestra . . . . .	Artxo-menestra
" asado . . . . .	Artxo errea
" chilindrón . . . . .	Artxo txilindroi erara
Lomo de cerdo frito . . . . .	Txerri-solomo frijitu
" " asado . . . . .	Txerri-solomo errea
" " villarroy . . . . .	Txerri-solomoa Villarroy erara
" " empanado . . . . .	Txerri solomoa ogi birrinetan
Chuletas de cerdo . . . . .	Txerri txuletak
Carne de cerdo . . . . .	Txerriakia
Guiarra de cerdo . . . . .	Txerri giharrea
Callos a la vizcaina . . . . .	Tripakailuak bizkaitar erara
Patas de cerdo a la vizcaina . . . . .	Txerri hankak bizkaitar erara
Patas de cerdo a la española . . . . .	Txerri hankak espainol erara
Carne braseada . . . . .	Okela txingarretan
Codornices en salsa . . . . .	Galeperrak saltsan
Fritada con pimientos . . . . .	Biperrada
Gallina en pepitoria . . . . .	Oiloa pepitorian
Sanchichas . . . . .	Saltxitxak
Morcillas . . . . .	Odolosteak

## PLATOS ENTRADA SARRERAKO PLATERAK

Alubia blanca . . . . .	Indaba zuriak
Alubia agarbanzada . . . . .	Txitxirio antzeko indabak
Garbanzos . . . . .	Txitxirioak
Lentejas . . . . .	Dilistak
Paella . . . . .	Paella
Arroz a la marinera . . . . .	Arroza marinel erara
Arroz a la casera . . . . .	Arroza etxeko erara
Macarrones con tomate . . . . .	Makarroiak tomateaz
Macarrones salteados . . . . .	Makarroi salteiatuak
Macarrones al gratín . . . . .	Makarroiak gratin erara
Tallarines a la italiana . . . . .	Tailariñak Italiako erara
Tallarines al ajillo . . . . .	Tailariñak baratxuritan
Patatas guisadas . . . . .	Patata gisatuak
Patatas en salsa verde . . . . .	Patatak saltsa berdetan
Patatas con arroz . . . . .	Patatak arrozaz
Patatas a la casera . . . . .	Patatak etxeko erara
Patatas con salsa roja . . . . .	Patatak saltsa gorritan
Patatas a la riojana . . . . .	Patatak Errioxako erara
Acelgas con patatas . . . . .	Zerbak patatekin
" salteadas . . . . .	Zerba salteiatuak
Coliflor con patatas . . . . .	Azalorea patatekin
Vainas con patatas . . . . .	Lekak patatekin
Berza con patatas . . . . .	Aza patatekin
Menestra de verduras . . . . .	Barazki-menestra
Ensalada mixta . . . . .	Entsalada nahasia
Ensalada rusa . . . . .	Entsalada "Errusia"
Porrusalda . . . . .	Porrusalda
Marmitako . . . . .	Marmitakoa
Sopa de fideo . . . . .	Fideo-zopa
" de arroz . . . . .	Arroz-zopa
" de pasta . . . . .	Orhe-zopa
" de ajo . . . . .	Baratxuri-zopa
" de pescado . . . . .	Arrain-zopa
" a la vasca . . . . .	Euskal zopa
" de vigilia . . . . .	Baraur zopa
" de marmita . . . . .	Marmita-zopa
" minestrone . . . . .	Minestrone-zopa
" tres filetes . . . . .	Hirur xerratako zopa
" bullabesa . . . . .	Bullabesa zopa
" al cuarto de hora . . . . .	Ordu laurden zopa
Crema de puerros . . . . .	Porru-zukua
" de legumbres . . . . .	Barazki-zukua
" de guisantes . . . . .	Ilar-zukua
" de espárragos . . . . .	Zainzuri-zukua
" castellana . . . . .	Gatzelako zukua
" de ave . . . . .	Hegazti-zukua

- " de puerros fría. . . . .Porru-zuku hotza
- " de cebolla. . . . .Tipula-zukua
- " de tomate. . . . .Tomate-zukua
- Sopa casera . . . . .Etxeko zopa
- " de tapioca . . . . .Tapioka-zopa

**PESCADOS**

**ARRAINAK**

- Bacalao a la vizcaina. . . . .Makailoa bizkaitar erara
- " al pil-pil . . . . .Makailoa pil-pilean
- " al ajo arriero . . . . .Makailoa baratxuri-oliotan
- " en salsa verde. . . . .Makailoa saltsa berdetan
- " con pimientos . . . . .Makailoa biperrekin
- " con pimientos . . . . .Makailoa biperrekin
- " a la vasca . . . . .Makailoa (euskal erara)
- " al gratín . . . . .Makailoa gratin erara
- " con tomame . . . . .Makailoa tomateaz
- " a la madrileña . . . . .Makailoa madrildar erara

- Merluza en salsa verde . . . . .Legatza saltsa berdetan
- " rebozada. . . . .Legatz frijitua
- " al horno . . . . .Legatz labean errea
- " al vino blanco . . . . .Legatza ardo zuritan
- " a la española . . . . .Legatza espainol erara
- " a la madrileña . . . . .Legatza madrildar erara
- " con pimientos . . . . .Legatza biperrekin
- " rellena . . . . .Legatz betea

- Calamares en su tinta . . . . .Txipiroiak beren tintan
- " con tomate . . . . .Txipiroiak tomateaz

- Truchas a la navarra. . . . .Amuarrainak nafar erara

- Bonito con tomate. . . . .Atuna tomateaz

- Merluza a la americana . . . . .Legatza amerikar erara

- Zarzuela de pescados . . . . .Arrain biribilketa

- Merluza al champán . . . . .Legatza xanpainetan

- " cocida con mayonesa . . . . .Legatz egosia maionesaz

- " " con vinagreta. . . . .Legatz egosia ozpinetan

- Mero a la plancha . . . . .Merua plantxan

- Besugo asado . . . . .Bixigu errea

- " en salsa roja . . . . .Bixigua saltsa gorritan

- " con pimientos. . . . .Bixigua biperrekin

- Zapatero con tomate . . . . .Itsasapoa tomateaz

- Rape a la americana . . . . .Itsasapoa amerikar erara

- Zapatero en salsa verde. . . . .Itsasapoa saltsa berdetan

- Abadejo lequeitiarra. . . . .Makailo freskoa lekeitiar erara

- " ai gratín. . . . .Makailo freskoa gratin erara

- " Orly . . . . .Makailo freskoa Orly erara

- " a la marinera. . . . .Makailo freskoa marinela erara

- Chicharros fritos . . . . .Txitxarro frijituak

- " asados . . . . .Txitxarro erreak

- Sardinas fritas. . . . .Sardina frijituak

- " asadas . . . . .Sardina erreak

- Anchoas fritas. . . . .Antxoba frijituak

- Libas fritas. . . . .Liba frijituak

- " empanadas . . . . .Libak ogi birrinetan

- Lirios fritos . . . . .Liliarrain frijituak

- Brecas en salsa verde . . . . .Lamoteak saltsa berdetan

- Reyes al horno . . . . .Erregearrainak labean

- Pescadilla . . . . .Merlenka

- Bacalao fresco en s/s.verde. . . . .Makailo freskoa saltsa berdetan

- Fanecas al horno . . . . .Fanekak labean

- Gallos rebozados . . . . .Itsasoilar frijituak

- " al vino blanco . . . . .Itsasoilarrak ardo zuritan

- " empanados . . . . .Itsasoilarrak ogi birrinetan

- Salmonetes fritos. . . . .Barbarin frijituak

- Berdeles al horno. . . . .Berdelak labean

- Bacaladitos. . . . .Makailotxoak

# EUSKALDUNTZEKO

**HUEVOS**

**ARRAULTZEAK**

- Huevos fritos con arroz. . . . .Arraultze frijituak arrozaz
- " " " croquetas. . . . .Arraultze frijituak krocketekin
- " " " jamón . . . . .Arraultze frijituak urdaiazpikoaz
- " " " salchichas. . . . .Arraultze frijituak saltxitzekin
- " " " morcillas . . . . .Arraultze frijituak odolosteekin
- " " " bacon . . . . .Arraultze frijituak urdaiaz
- " " " patatas . . . . .Arraultze frijituak patatekin
- " " " pimientos. . . . .Arraultze frijituak biperrekin
- " " " tomate . . . . .Arraultze frijituak tomateaz
- " " " a la flamenca. . . . .Arraultze frijituak flamenko erara
- " " " francesa . . . . .Arraultze frijituak frantses "
- " " " donostiarra . . . . .Arraultze frijituak Donostiako "
- " " " turca . . . . .Arraultze frijituak Turkiako "
- " " " sevillana . . . . .Arraultze frijituak Sevillako "
- " " " paisana . . . . .Arraultze frijituak Herriko "
- " " " española . . . . .Arraultze frijituak Espainiako "
- " " " riojana . . . . .Arraultze frijituak Errioxako "
- " cocidos con vinagreta. . . . .Arraultze egosiak ozpinetan

- " cocidos con tomate . . . . .Arraultze egosiak tomateaz
- " " a la casera. . . . .Arraultze egosiak etxeko erara

- Tortilla española . . . . .Tortila espainola

- Huevos escalfados a la pamesana . . . . .Arraultze guti eginak "pamesana" erara

- Tortilla de bonito . . . . .Atun-tortila

- " " espárragos. . . . .Zainzuri-tortila

- " " guisantes . . . . .Ilar-tortila

- " a la paisana . . . . .Tortila Herriko erara

- " a la española . . . . .Tortila Espainiako erara

- " de jamón . . . . .Urdaiazko-tortila

- " de chorizo. . . . .Txorizo-tortila

- " de queso . . . . .Gazta-tortila

- " de cebolla . . . . .Tipula-tortila

- " de espinacas . . . . .Espinaka-tortila

- " de riñones. . . . .Giltzurri-tortila

- Huevos escalfados Mornay. . . . .Arraultze guti eginak "Monray"/erara

- " " al gratín . . . . .Arraultze guti eginak gratin erara

- " " con tomate . . . . .Arraultze guti eginak tomateaz

- " " a la crema . . . . .Arraultze guti eginak kremaz

- " " " florentina. . . . .Arraultze guti eginak "Floren-/tzia" erara

- " " "parmentier. . . . .Arraultze guti eginak "Parmen-/tier" erara

# TXIBATOEN AURKAKO KANPAINA EUSKAL HERRIA



Eusko Kontseilu Nagusia lan gogorra ari da egiten. Orain, Mokloako Estatutua lortu ondoren, txibato edo salatién aurkako kanpaina egiten ari da. Berri-agentziek diotenez, éxito handia lortu du oraingoz eta, segi aski, hemendik aurrera ETAK ez du txibatorik hiri beliarako.

ANAITASUNAKO fotografoa (beti bezala, notiziaren puntan) han zegoen eta argazki hauk atera ditu.

Hala ere, zurrumurrei kasu egiten badiegu, bederen, Euskal Kontseilu Nagusian ere infiltratu omen dira txibatoak. "Kontseiluak besteentzat..."

Argazkian ikusten duzuen bezala, azken hamabostaldian hil dituzten txibatoak pilatu egin dituzte eta bi gizon horiek, palaz, labera botatzen dituzte. Euskadiko teknikoek jabeti berri eta usaintsu bat egin nahi dute txibatoen saldarekin. Jabeti horren deitura "Caribeko txibato salbaiak" izen da.



Hona hemen, Euskal Herriko txibato baten argazkia

Horrelakoren bat ikusten baduzue, hurbilen da goen komisaldegira joan zaitezte abisua ematera. Euskal Kontseiluak eskertuko dizue zuen kolaborazioa.

Batez ere, erne muturrakin!! Konturatzen e bazatere, hozka batez Mocloako Estatutua kenduko dizue, Nafarroa kendu diguten bezala. Amen, Karlos.

## ANAITASUNAKO KAZETARIEN "LIGEAK"

Bai, jaunak bai! ANAITASUNAKO kazetariak ere ligatzen dute beren erreportaiak egitera joaten direnean. Hitzak sobera direla uste dut, batez ere horrelako grafikoak ikusiz gero.

Tomas Trifol-ek, Leitzara etorri eta ondoko neska hori eraman zuen "artadira". Nik ez dakit zer egin zuen han, baina gutxienez neskari arropa guztiak kendu zizkion, eta horrela "posatu" zuen neska xarmantak.

Joxe LLerandik, berriz, Miami-ra egin zuen bi-bidaia bat eta han, erreportaija egin behar zuela (aitzakia besterik ez), "al huerto" eraman zuen Iberiako azafata hori. Egia esateko, baratza horretan ere artoak ziren eta mediku lagun batek esan didanez, Joxeri popatik artazoztor bat sartu omen zitzaion amodio lanetan ari zela.

Dena den, euskal arraza hobetzeko eta "JEL" indartzeko aukeratu omen zituzten neska horik, gure bi kazetariok. (Ikus bularretako potenziak).

Oraindik niri ez zait txanda etorri eta orain hartuko ditudan oporretan, zori pixka baten esperantzarik ez dut galdu.

Euskaldunok: ANAITASUNAKO harpidedun egin zaitezte eta kristoren txoiloak izanen dituzue, hala mutilak, nola neskak..

Aukera ederra, ANAITASUNARENA!



I. Zabaleta,

# Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**



**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA


Laguntza handi bat

# UDAKO EUSKAL

*Euskal Kulturaren barnean UEUK daukan garrantzia kontutan hartuz, ANAITASUNAK agerpen berezia egin nahi du, gai nagusi bezala, gure kulturaren bizkorgarri den erakunde hori erabiliz. Aurtengoa zazpigarren ekitaldia dela guztiok dakigun gauza da, komunikabide askotan aipatu baita datu hori. Eta zazpi urteko haurrak bezala, garatze-prozesu bizian sarturik dago. Etengabe aurrerapausoak emanez, agian bere sasoian adin nagusigora helduko da eta bere eraginez, itxaropenez beterik espero dugun Euskal Unibertsitatearen sorkuntzan parte hartuko ahal du!*

*Gure ustez ongi merezi duelako, transkribitu egingo ditugu lehenik eta behin, Martin Orbe jaunak, idazkari gisa, VII ekitaldi honen sarrera-hitzaldian esaniko hitzak. Berek definitzen baitute ongi, aurtengo saioen abiada eta aurrerabidea, Unibertsitate honen garapena barnetik behatzen duen pertsona baten ikuspegitik.*

*Hauxek izan ziren, ba, Orberen hitzak:*



Sarrera hitzaldia: Martin Orbe, J.M. Satrustegi eta Pierres Xarriton.

“Lehen eta bein, ongi etorria eman nahi nizueke VII UEU burutzeko Euskal Herrietatik Iruñara hurbildu zareten irakasle eta ikasle guztioi:

Nafarroako hiriburuan, Larraona Ikas-

tetxean, Udako Euskal Unibertsitatearen zazpigarren ekitaldiari hasiera ematera goaz.

-Lehenengo, ordenak esangura berezirik ez duen arren, aipatzekoak dira,

sail batzutan egingo diren laborategiko praktikak. Hain zuzen, Kimika eta Biologia sailetan. Kimikan, laborategiez gain, ikastaldiak eta mintegiak egongo dira. Baina Biologian ez da egongo

# UNIBERTSITATEA

ikastaldi teorikorik", ikastaroa laborategiko praktiketaz osotuko baita.

Bertan, aldi bereko zenbait ikastaro egingo dira, eta azken hiru urteetan hartutako bidetik, goizez ikastaldiak emanez, eta arratsaldez mintegiak. Baina, azken urteotan finkatuz joan den egituraren barnean, aurtan zenbait alderditatik aberastu egin dugula uste dut. Aberastasun edo berezitasun horik zeintzu diren, labur-labur aipatuko dut:

-Beste berezitasun bat, zientzien arloan Einstein buruz antolaturik dagoen egun berezia da. Aurtan Einstein-en jaiotza-ren mendeurrena betetzen dela kontutan harturik, berari oso osoan dedikaturiko egun bat jarri da: Goizez hiru hitzaldi edo mintegi eta arratsalde, mainguru bat.

-Hirugarren berezitasun bat, bi tesinen aurkezpena euskaraz egingo dela da. Guretzat ohoragarria da esatea, tesina hau prestatu dituzten ikasle biak, azken urteetan UEUn ibilitakoak direla. Tesina bat Edurne Biritxinagak aurkeztuko du Euskararen Entropiari buruz Matematika sailean, eta bigarrena, Biologia sailean, Sira Aihartzak, Koltxizinenaren efektuak "Triticale" primarioen produktzioan delako izenburuarekin. Biak UEUn saiatuak, eta ni bizkaitarra naizenez hau ere azpimarratu nahi dut, biak dira bizkaitarrak.

-Laugarren berezitasuna ere nahiko aberasgarria dela uste dut, Irurtzungo projektua prezeski. Natur Zientzietakoek hiru irteera egingo dituzte Irurtzuna. Aldez aurretik, bezperan prestatuko dute irteera bakoitza; gero han bertan emango dute egun osoa datu-bilketan; eta ondorengo egunean, jasotako datuei buruzko mintegiak egongo dira.

Baina Irurtzungo projektu hau ez da soilik Natu Zientzietakoaren artean mugatuko. Denbora berean, Arte sailean ere egingo dute azterketa txiki bat, eta bai demografian eta estatistikan ere.

Bestalde, kontutan hartu behar da, Irurtzungo projektua ez dela hotz-hotzean hara joan eta bertan azterketa txiki bat egitea. Ostera, irteeren prestatzaileak Irurtzungo zenbait jende eta talderekin harremanetan egon dira azken hileetan; beraz, oso aberasgarri izan daitekeela uste dugu. Demografia sailean,



esaterako, ba dituzte jadanik 4000 edo 5000 fitxa inguru eginak. Beraz, ba dago hor, herriarekiko lotura modu bat, eta gure kezka den UEUren herriratze horri halako erantzun txiki bat ere ematen diogula uste dut.

-Berezitasunekin segituz, Magistergo ikasleekin eginiko talde berezia ere aipatu behar da. Bertan, UZEI eta Elhuyar taldeen laguntzarekin, ikasle horien alfabetatze teknikoa (beren lanerako) lortu nahi da.

-Pedagogia sailean, era berean, aipagarri da entzun-ikus metodoei buruz J.M. Susperregik emango duen ikastaroa. Gainera, berorrek asmoa du, UEUren historia adieraziko duen muntaia audio-bisual bat prestatzeko.

-Eta berezitasunekin bukatzeko, Hizkuntzalaritza sailean egin dugun birplanteiaketa azalduko dugu. Dakizuenez, azken bi urteetan, Euskaltzaindiaren tituluetarako prestatzeko ikastaro batzu eman ditugu. Baina, batez ere jendearen eskariari erantzunez -ihaz, azken Bilera Nagusian, jendeak hori azpimarratu zuen-, nolabait esateko Hizkuntzak ere beste tratamendu unibertsitarioa behar zuela pentsatuz, aurtengo birplanteiaketa bat egin dugu. Beraz, ez da egongo titulua ateratzeko ikastarorik, eta, ostera, Hizkuntza saila ere unibertsitate mailan jarri dugu. Gainera bi ataletan banatu dugu; Hizkuntzalaritza eta Literatura.

Ene ustez, ba, horixek dira aurtengo UEU honen berezitasun nagusiak.

Amaitzeko azpimarratu egin nahi nuke -eta uste dut hemen biltzen garen guztion gogotan dagoela- UEU gero eta gehiago -eta zorionez diot- ez dela bakarrik hemen egingo ditugun hamabost egunetakoa soilik. Gero eta gehiago,

UEUk ba du oihartzunik urtean zehar. Oihartzuna bi ikuspuntutatik adierazi nahi nuke.

Baterik, UEUri begira eta zuzenki urtean zehar egiten den lana. Esaterako, ondo dakizue, nola honako apunte gisako liburu batzu prestatzen diren; eta, jakina, lan hori egiteko ez da aski hemen biltzea, horrek urtean zeharreko lana eskatzen baitu. Aurtan, adibidez 18 edo 19 titulu argitaratuko ditugu, eta horrek argi erakusten du lana.


Bestetik, nahiz eta UEUri begira ez izan, beraren inguruan eta UEUrekin koordinaturik, ba dira hainbat kultur ekintza aberats. Aipagarrienak liriteke, beharbada, UZEIren hiztegi gintzaren ingurukoak, horretan UEUko zenbait partaide ari direlarik. Hemen bertan, bi hiztegiaren aurkezpena egingo dugu: Fisika eta Kimikari buruzkoena. Eta honekin batera, pixkanaka-pixkanaka, UEUren eragina Unibertsitate ofizialean ere sartzen ari dela uste dugu. Eta honetaz, asko eta gehiegi ez luzatzeagatik, adibidez, Lejoako Unibertsitatean datorren urterako dagoen plana aipatuko nuke. Zientzia Fakultatean, hain zuzen, eginak dira hainbat batzarre, datorren urtean ikasle eskaldunei ikastaldiak euskaraz ematen hasteko; eta pozgarri da guretzat, horretan murgilduta dauden irakasleak UEUko irakasle saiatuak direla esatea.

Honenbestez, bukatu egingo dut, ba, neure aurkezpen txiki hau, eta orain besterik gabe, iparraldeko oihartzuna ekartzeko, Piarres Xarritoni emango diot hitza".

Eta Martinek esan legez, hurrengo Xarritonek hartu zuen hitza sarrera hitzaldia emateko. Bertan historiari abiatu zen, UEUren bilakabideari buruzko ideia interesgarriak plazaratzeko.

Bukatzeko, beste nafar batek, berau hegoaldekoa, J.M. Satrustegik hain zuzen ere, irekitz eman zuen VII UEUko ekitaldia, Udako Euskal Unibertsitatearen babesle den Euskaltzaindiaren izenean.

Ramon Garai



# U.E.U.ko jendearekin hizketan

Udako Euskal Unibertsitateari buruzko artikulu teorikoez nekatuz, interesgarri eritzi diogu, bertan parte hartzen duen jendearen eritzia biltzea. Horrelako batzutan, izen handiko pertsonak hartu ohi dira, beren eritzi sakona ezagut erazteko. Baina guk nahiago izan dugu, hain ezagun ez direnengana jotzea -salbuespenen batez-, nolabait jende "normalaren" ideiak agertzeko.

Honelatan, ba, abaniko zabala edukitzeko, era, adin eta jatorri desberdinetako pertsonak aukeratu ditugu, eta bakoitzari bost galdera hau egin dizkiogu:

- 1.-Zenbat aldiz etorri zara UEUra.
- 2.-Zer arlotan parte hartzen duzu aurten? Zergatik?
- 3.-Zergatik etorri zara UEUra?
- 4.-Zer funtzio du, zure ustez, UEUK etorkizunari begira?
- 5.-Zer eskatuko zenuke, UEUn aurrerapausoak emateko.

Hurrengo lerroetan hamazazpi pertsonaren erantzunak ageri dira. Erantzun horiei buruzko iruzkin kritikoa, irakurleari uzten diogu. Guk geuk, jaso ditugun bezala ematen ditugu.

**Eufronio Agirre**, 60 urte, erlijiosoa, Marurin (B) jaioa, Lejoan bizi da. Betidaniko euskalduna, ikastetxe batetan euskal sailaren arduraduna da. UEUn ikasle bezala parte hartzen du.

- 1.- Lehendabizikoz, baina ahal izan barenuen, bestetan ere etortzeko gogoia barenuen.
- 2.- \* Hizkuntza sailean.  
\* Batipat, horretaz lan egiten dudalako.
- 3.- Neure burua lantzeko, besterengandik ikasteko, ideiak berriztatzeke,... Eta gizarte-mailan, euskal kulturaren lanean

ari direnekin harremanak izateko.

- 4.- Funtzio handia duela uste dut. Geroari begira egon gabe, gaurtik oinarriak jastea, aurrerapen handia da, Euskal Unibertsitatea hasi nahi denean hutsetik ez hasteko, bideak (jendea, hizkuntza, liburuak, giroa,...) urratu behar ditugulako.
- 5.- Gaiak zabalduz joan daitezela eskatuko nuke, poliki-poliki Unibertsitate osokoak hartzeko. Jendetza ugaldadin, orain eskubideak (edo lortzeko ahalmena) ditugularik, ofizialtasun handiagoa izan dezala eta erakundeen diru-laguntza.



**Gurutze Maguregi**, 22 urte, ezkongea, Bilbon jaioa eta bertan bizi da. Euskaldun berria, Lejoako Zientzi Fakultatean Biologi lizentziatura bukatu berria du. Hemen Biologiako praktiketako irakasle bezala dago.

- 1.- Duela bi urte eta aurten.
- 2.- \* Lan bat prestatu dugu Biologiaz, hemen aurkezteko eta bestalde, Histologiako praktikak ematen ditugu.

\* Arlo hau bultzatu behar dugulako.

- 3.- Lehenengo, maila zientifikoan gaiak euskaraz lantzeko. Bigarren, hamabostaldi osoa euskaraz hitzegiten pasatzeko. Hirugarren, jendea ezagutzeko.
- 4.- Pauso bat izan daiteke, Euskal Unibertsitatea edukitzeko.
- 5.- Publizitate gehiago eduki behar du. Beharbada, horretarako beste lekuren bat aukeratu behar da.





**Josune Ugarte**, 31 urte, ezkondua, alaba bat. Azpeitian jaioa, duela lau urte Bilbon bizi da. Lauroko ikastolan andereño bezala dihardu. Hemen ikasle bezala dago. Betidaniko euskalduna.

- 1.- Lehendabiziko aldiz.
- 2.- \* Hizkuntzalaritzan eta Pedagogian.  
\* Bi hizkuntzen arazoak kezkatuak naizela eta nire lanarekin zerikusirik duelako.

3.- Batez ere, hizkuntzari buruzko ezagutza sakontzera. Bestalde, bidea aurkitu dut, elebitasunaren problematikaz lan egiteko.

4.- Ez dakit. Gaudeneko egoera ofizialak ez digu posibilitaterik ematen, gauzak beste modu batez egiteko, eta arazoa normalizatu arte, bide bat edo eskaintzen digu UEUK.

5.- Diru-beharra ba da. Eta arlo guztietan (hizkuntzan, zientzian,...) guztion aportazio-beharra.



**Agurtzane Lexardi**, 23 urte, ezkongea, Eibarren jaio eta Eibarren bizi da. Betidaniko euskalduna, Salamancan ari da Filologia Ingelesa ikasten. UEUn ere ikasle da.

- 1.- Azken lau urteotan.
- 2.- \* Hizkuntzalaritzan eta Literaturan.  
\* Filologian ikasiriko gauzak euskarren arloan ikusteko.

3.- Bederatzi hilabete Salamancan pasatu ondoren, hemengo egoeran sartzeko oportunitaterik egokiena hauxe delako.

4.- Benetako Euskal Unibertsitatearen oinarria izatea.

5.- Urtean zehar honelako lanetan segitzea. Nire kasuan, Kontaktuan egon nahi nuke, neure erako lanetan ari den jendearekin.



**Iñaki Irazabalbeitia**, 22 urte, ezkongabea, Donostian jaio eta Donostian bizi da. Kimika ikasketak bukatzen, UEUn irakasketak bukatzen, UEUn irakasle bezala parte hartzen du. Erdi euskaldun zahar, erdi euskaldun berri.

- 1.- Laugarren aldiz.
- 2.- Zientzi arloan, Kimikan batez ere.  
- Kimikazko gaiak interesatzen zaizkidalako.
- 3.- Noizbait Euskal Unibertsitatea lortzeko, UEU beraren oinarria delako. Gainera, irakaslegoa prestatzeko, euskara zientzi gaitan lantzeko,...

4.- Aurreko puntuan erantzuna düt nolabait. Bestalde euskal munduko indarrak (unibertsitate ofizialekoak, alderdiak,...) Kontzientziazteko, zirikatzeko. UEU, euskal kultur munduko jendearen biltze-tokia da, eritziak trukatzeko eta harremanak zabaltzeko tokia,...

5.- Lehenik, jendeak hau seriozki har dezala, batzuk denbora-pasa modura hartzen baitute. Zenbait sailetan ikusten da, urtean zehar ez dela ardurarik jartzen eta lanik ez dela egiten. Noski, gero nahiko txapuza egiten dute eta hori hurrengo urteetarako kaltegarri gertatzen da.



**Andolin Eguzkitza**, 25 urte, ezkongea, Santurtzin jaio eta bizi da. Linguistikazko ikaslea, euskaldun berria UEUko irakaslea.

- 1.- Bostetara. Lehenengo lauretara. Gero bi urtez kanpoan izan naiz eta aurten berriro etorri naiz.
- 2.- \* Hizkuntzalaritza eta Literaturan.  
\* Hizkuntzalaritza, horretaz ikasten ari naizelako, eta Literaturan, musika-rekin batera nik gehien atsegin dudana delako. Bestalde lanen bat horretaz egin dudalako, hemen aurkeztu dudana hain zuzen ere. Lantzean behin, gustuz, Filosofia eta Politika arloko mintegietara ere joaten naiz.
- 3.- Arrazonamendu polotiko eta Kulturaletan sartu gabe, nik lan egiten dudaneke eta maite ditudaneke alorrak euskara hutsean eta euskaldunen artean lantzeko eta erabiltzeko etorri naizela esango nuke, eta horrela bolada labur bat emateko. Hots, hirietan eta ikasle-giroan bizi garenon problema gainditzeko, hain zuzen ere, gauza horik hizkuntza arrotzez egin beharra.

4.- Funtzio nagusi bi. Bata, gure hizkuntza kultur maila guztietara egokitzea. Bigarrena, Uztaritzeko manifestuaren arauerako Euskal Unibertsitate bat ez dugun bitartean, nolabaiteko proiektu erreale baten egiaztatzea; zera hartu behar dugulako, kontutan orain dagoen Unibertsitate Euskal Unibertsitate hartzeko gertatuko den bilakabidea oso luzea izanen dela, hizkuntza beragatik eta irakasleen benetako gertaketa zientifikoarengatik.

5.- Estatutu delako honekin gertatuko den egoera berria kontutan hartuta, eta aurreko galderan aipaturiko bilakabide hori behin betirako benetako abiadan jar dadin, Unibertsitate horren Udako Euskal Ikastaroa bihurtzea; jakina, bere independentzia guztia gordez, baina irakasleak ordainduko lirakeelarik, ahal den euskal irakasle gehien bertara eramanez. Gainera, hilabetekoa izatea, eta hasia den publikazio-sail horri zertan bat ematea. Modu horretaz, euskal lanak (euskaraz egindakoak) eta euskal eskolak hasi eta hazi egiten lirakeelako bai Unibertsitate normalean ere.



**Joan Mari Agirregabiria**, 27 urte, ezkongea, Bilbaon jaio eta bizi da. Lejoako Zientzi Fakultatean Fisikazko irakaslea. Euskaldun berria.

- 1.- Hauxe da lehenbiziko aldia.
- 2.- \* Fisikazko arloan.  
\* Arlo horretan lan egiten dudalako eta Fisika euskaraz nola egin daitekeen ikasi nahi dudalako.
- 3.- Egunen batetan edukiko dugun Euskal Unibertsitatearen zutabe bat UEU denez gero, horrelako projektuan intere-

saturik gaudenok, parte hartu behar dugula uste dut.

- 4.- Nire ustez, hiru funtzio. Lehena, lexiko zientifikoa finkatzeko baliagarri izatea; bigarrena, nolabait irakasle euskaraz arduratzen, eztabaidatzen eta, azken batez, lan egiten hastea.
- 5.- Alde batetik, ahalik eta jende gehiena lan honetan konprometitzea eta bestaldetik, Euskal Herrian dugun Unibertsitate ofizialarekin harreman hestuegotean sartzea, bai maila ofizialean eta bai bertan lan egiten duen jendearekin ere.



**Sagrario Aleman**, 27 urte ezkongea, Etxalekun (N) jaio eta bizi da. Ikasketez farmazeutikoa, gaueskoletako irakasle modura ari da. Betidaniko euskalduna.

- 1.- Bostgarren aldiz.
- 2.- \* Natur Zientziak eta Pedagogia arloetan.  
\* Natur Zientzian gustatu egiten zaizkidalako eta pedagogian, horretan lan egiten dudalako.
- 3.- Euskara pixka bat lantzeko. Eta jen-

dea ezagutzeko eta giroa nola doan ikusteko.

- 4.- Nire ustez, funtzio nagusia euskal irakasleak eta Euskal Unibertsitate bideak prestatzea da.
- 5.- Gauza batzutan maila apalagoa eskatuko nuke, ikasketarik ez daukan jendeak ere parte har dezan. Beharbada, komenigarri litzateke urtean zehar bi saio egitea, hauekako bat neguan izanik. Bestalde, praktika arloan gehiago saiatzea eskatuko nuke.



Patxi Uribarren, 27 urte, erlijiosoa, Aramaion (A) jaioa, Bilbon bizi da. Betidaniko euskalduna, Bilboko Magistergo eskolako euskarazko irakaslea da.

1. Azkeneko hiru urteetan.
2. Zergatik? Ba, nire klaseen prestakuntzarako nahi eta nahiezkoak ditudalako, batez ere, datorren urtean euskai filologia irakatsi behar dugula kontutan harturik.
3. Gaurkoz, Euskal Herrian euskara eta euskal kultura sakonki lantzeko ia bide bakarra dugulako. Bide batez, biharko Euskal Unibertsitateko oinarriak finkatzeko ahalegina egin behar dugulako; horretarako, noski, bide bakarra dugu, euskal munduan ari garen irakasleak elkartzea.
4. Alde batetik, biharko Unibertsitatea-

ren azpiegitura bat sortzea; eta horretarako, beharrezkoak diren hiztegiak, mintegiak eta abar bultzatzea.

Bestetik, une historiko honetan, Euskal Herrian dagoen Unibertsitatearen salakuntza izan daiteke, oraindik hor ez baitzaio benetako tokirik eman ez euskarari eta ez euskal kulturari ere. Horregatik, UEUK bihar etziko gure Unibertsitateak nondik nora jo behar duen adierazten digu.

5. Nik uste, aurtan pauso ona eman da, gaiak sakonkiago eskainiz. Hala ere, arlo batzu oraindik ukitu gabe ageri dira. Beharbada, eman beharko litzatekeen pausorik onena, euskal munduan jakintsu diren irakasle eta osterrantzeko langileei dei pertsonal bat egitea izango litzateke, UEU eta Euskal Herriko Unibertsitatea nola bide batera ekarri ikusteko.



Itziar Eizagirre, 33 urte, ezkongabea, Azkoitia jaioa, Donostian bizi da. Bertan, subnormalekin egiten du lan San Mikel Patronatoan (Miramonen). Betidaniko euskalduna.

1. Azken bi urteetan.
2. \* Filosofian.  
\* Asko gustatzen zaidalako eta orain Filosofia eta Heziketari buruzko Zientzien lizentziatura bukatu berria dudalarik, ikasiz segitu nahi dudalako.
3. Nire ezagumenduak euskaraz zabaltzeko. Bestetik, beste probintzietako euskaldunak ezagutzeko eta berekin

harremanetan jartzeko.

4. eta 5.- Nik pentsatzen dut, oraingo Estatutuarekin CGV-k lagundu egin beharko duela UEU. Alde batetik, erraztu egin behar dituela bideak beste euskaldunak ere hona etortzeko. Bestetik, UEU potentziatu egin behar duela, hemengo maila goratzeko. Horregatik, irakasle onak ekartzeko medioak ipini behar ditu. Eta, gauzarik garrantzizkoena, Unibertsitate ofizialarekiko paralelismoa erraztu, bertan elebitasuna eta irakasle elebidunak sartzeko eta bertara UEUren izpiritua (Uztaritzeko manifestuaren arauera) eramateko.




Xarlex Bidegain, 32 urte, ezkongea, Baionan jaio eta bertan bizi da. Ikastetxe batetan frantsesa eta euskara irakasten du. Euskaldun berria.

1. Lauzpabost aldiz.
2. \* Hizkuntzalaritzan.  
\* Urtean zehar neure lanean euskara irakasten baitut, hemen izaitaia parada ona da, teoria linguistikoaren eta euskara beraren hobeki ezagutzeko.
3. Euskal Kulturaren munduan gaur egun

dauden jauginak zuzenki ezagutzeko. Batasunaren aldetik, beharrezkoa da, bestalde, Iparraldearekin harremanak edukitzea.

4. Dagoeneko, Unibertsitate ofizialek egiten ez dutena egiten saiatzea, bai hizkuntzaren aldetik eta bai gaiaren aldetik ere.
5. Nire kezka bat, zera da: Zer egin, Iparraldeko jende gehiago etor dadin? Beste: Hemen egiten diren gauzek, urtean zehar segida ukan dezatela (lantalde berriak sortuz,...).



**Jaione Ezkurdia**, 21 urte, ezkongea, Ormaiztegin (G) jaioa eta bertan bizi da. Lejoan ari da Biologia ikasten. Betidunik euskalduna.

- 1.- Hau hirugarren urtea da.
- 2.- \* Natur Zientzietan (Biologian).  
\* Gustatu egiten zaidalako eta hori ikasten ari naizelako.
- 3.- Hemendik aurrera ikastaldiak euskaraz emango direla uste dudalako, eta ho-

nelako ikastaroak euskal arloan prestatzeko oso ongi datozelako, euskara beste hizkuntzen mailara igon nahi badugu batez ere.

- 4.- Euskara hizkuntza ofiziala egin nahi badugu, arlo guztietan erabili beharko dugu; hau da, Unibertsitate mailan ere egin beharko da.
- 5.- Maila guztietan, orain arte bezala, aurrerantz joan dadila, eta batez ere, jende gehiagok parte har dezala.



**Karlos Otegi**, 39 urte, ezkongea, Donostian jaioa, Lasarten bizi da. Euskaldun ikasia (nahiko berria) Tolosako ikastolan irakasle bezala lan egiten du. UEU honetan irakasle bezala dago, Euskal Literaturaren testu batzuren azterketari buruz saiatuz.

- 1.- Azkeneko hiru urteetan.
- 2.- \* Literatura eta Linguistika arloetan.  
\* Nire lana arlo horietan finkatzen delako eta gai horretaz (testu-azterketaz) arduratzen naizelako.
- 3.- Alde batetik, klaseak eman behar ni-tuelako. Bestetik, bestek eginiko lanak ikusi, entzun eta ikasteko.

4.- Urtean zehar egiten diren lanen kontrastatzea, elkarlotzea eta, horrela, unibertsitate-gaietako zutabeak sendotuz, argituz, aztertuz eta indartuz joatea, egunen batetan sortuko den benetako eta urte osoko Euskal Unibertsitate-ko gaiak eta pertsonak landurik eta trebaturik edukitzeko.

- 5.- Hemen biltzen garenon artean, urtean zehar harreman eta elkarlan ugariagoa edukitzea. Jadanik, datorren urterako lanak antolazen hastea, urtean zehar eginez joateko, helburuak markatuz, lanak ongi prestaturik ekartzeko, inprobisazioak eta azken orduko lanak ez aurkezteko.



**Mari Luz Esteban**, 19 urte, Burgosen jaioa, Basaurin bizi da. Euskaldun berria. Medikuntza ikasten ari da Lejoan.

- 1.- Hirugarrenez; azken hiru urteetan.
- 2.- \* Medikuntzan.  
\* Gai hori ikasten ari naizelako.
- 3.- Pixka bat, inertiagatik. Kurtsuan zehar euskarari buruz gutxi egiten dudanez, hemen zerbait egiteko Hala-

ber, jende berriarekin harremanak edukitzeko.

- 4.- Nire ustez, asko ez. Birplanteiaketa bat egin behar da. Inertzia batetan sartu da eta ez diot irtenbiderik ikusten.
- 5.- Lehen gauza, Euskal Kulturaz eta Euskal Unibertsitateaz zer nahi dugun argiro definitzea. Egiten ari garenaren kritika serio bat. Eta jendeak lan gehiago egin dezala.



Jose Manuel Susperregi, 26 urte, ezkon-gea, Hondarribian jaioa, Bilbon bizi da. Argazkilaria da eta irakasle bezala lan egiten du. Betidaniko euskalduna da eta UEUn entzunikus metodoek pedagogian duten garrantziaz ikastaro bat ematen dihardu. Bera da bestalde, erreportaia honetan ageri diren argazkien egilea.


- 1.-Lehendik ere ezaguna nuen (argazkiak eta erreportaiak eginez,...), baina hauxe da osorik parte hartzen dudane-ko lehenabizikoa.
- 2.-Ikus-entzun metodoei buruzko azterketan, aplikazio pedagogikoei loturik. Metodo hauk gero eta gehiago erabili behar direla uste dudalako.

3.-Alde batetik, barrutik ezagutu nahi nuelako. Bestetik ikastaldien maila ezagutzeko eta jendea medio audiobio- sualez kezka erazteko.

4.-Taldeak egitea, harremanak indartzea, jendea ezagutzea. Azken batez, euskal kulturaren dinamika bultzatzea.

5.-Kasu batzutan, interes bereziaren fal- tagatik, ikasle batzu ez dira gehiegi motibatzen, ezagutzen dituzten gaiak tratatzen direlako. Unibertsitate hon- nek, urte osoan zehar egiten diren lan interesgarrien aurkezte-lekua izan be- har luke eta, noski, eztabaidatzeko le- kua.

Gauza berri eta deigarriak erabili be- harko liriateke, ideiak sortzeko eta ez- tabaidatzeko.



Jon de Luisa, 42 urte, ezkondua (bi mut-til eta neska bat), Donibane Lohitzunen jaioa, zazpi urte zituenetik Mexiko-n bizi da. Betidaniko euskalduna ikasle edo entzule gisa etorri da UEUra Utz dezagun bere burua definitzen:

"Lanbidez, injinadore kimiko indus- trialia naiz eta ehungintzan lan egiten dut. Azkenekoz, duela lau urte etorri nintzen Euskal Herrira. Sapa berriztatzen etorri ohi naiz. Mexiko-ko Euskal Etxeko talde zuzendari nago. Euskal Etxean 300 —400 familia euskaldun dago; gure ustez beste horrenbeste familia ere ba dira, bai- na ez dira bertara joaten. Mexiko-n, Eus- kal Etxera joatea konprometiturik egotea da, zerbait sentitzea. Adibidez, ez dauka- gu harreman berezirik hango kolonia es- painolekin eta ez frantsesekin ere, nahiz eta enbaxadek, hori lortu nahi duten. Argi eta garbi euskaldun sentitzen gara, eta horregatik da konprometitua.

Euskara aldetik, Eibar eta Elgoibarretik makinak muntatzera jotzen teknikar- iekin egiten dugu euskara pixka bat. Zaharren artean ere bai. Bestela gutxi.

Dena den, dauden euskaldun asko, dirua eginez gero pozik etorriko liriateke hona bizitzera. Oso ondo hitz egiten dute, ho- na etorri ondoren".

Luze egin dezakegu berba, baina galde- rak erantzutera pasatuko gara.

1.-Lehenengo aldiz.

2.-Neure lanbidean euskara sentitu nahi izan dut neure ingurunean. Hori izan da nire biziko guraria. Betidanik, bai Donibanean eta bai Uztaritzen egi- ten zenean ere beti segitu baitut UEU. Beraz, Kimika arloan sartu naiz.

3.-Niretzat interesgarria zen jendea ia- nean euskaraz sentitzea. Eta horretara etorri naiz. Beldur pixka batez etorri nintzen, baina orain pozik nago.

4.-Momentu honetan batez ere, hemen- dik benetako Euskal Unibertsitatea egiteko programaketak egin behar dire- la uste dut.

5.-Urtean zehar lan egitea, eta hau Uni- bertsitate ofizialean sartzeko bide bat izan dadila.



Itxarone Amantegi, 21 urte, ezkongea, Lemoan jaioa eta Durangon bizi da. Be- tidaniko euskalduna, Donostian ari da Geografia eta Historia ikasten. UEUn ikasle bezala dago.

1.-Lehenengo aldiz.

2.-\* Historian eta Artean. Musikako min- tegira ere joan naiz.

\* Zergatik? Begira. Hurrengo urtean aukeratu egin behar dut ikasketetan, Historiaren eta Artearen artean eta in- formazio gehiago eduki nahi izan dut aukerarako.

3.-Euskaldun jende gazteok kulturaren arloan gehiago mugitu behar dugula uste dudalako. Eta Euskal Unibertsiti-

tatearen etorkizunerako oso garran- tzizkoa dela uste dudalako.

4.-Etorkizunerako oso garrantzizkotzat daukat hiztegi gintza eta urte batzu barru, gure Unibertsitatean euskara de- rrigorrezkoa izango delako. Horrela, UEUkoak lehenengo pausoak dira aurrera egiteko.

5.-Euskalduna izaten segitzea, herritarra izatea. Herrietako jende normalak parte gehiago hartu beharko luke. Bes- talde, hemen gaudenok urte osoan ze- har geure mailan eta geure fakultatean lanak prestatzen segi dezagula eskatu- ko nuke. Oso garrantzizkoa litzateke, halaber, EGB eta BUPerako materia- leak prestatzen gu ere aritzea.



# UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA



Larraona UEUko lekua

Azken eguneko batzarre orokorrean, UEUko partaideek agiri hau onartu zuten, kontrako botorik gabe. Agiri honetan hiru eskari nagusi eginen dira:

1. Euskara irakaskuntzan seriozki bultzatzeko.
2. Komunikabide euskaldunak lortzeko, eta konkretuki euskara hutsezko telebista-kanalea.
3. UEUko laguntza ofiziala erdiesteko.

Hona hemen, hitzez hitz, delako agiri hori.

# UNIBERTSITATEAREN AGIRIA

Udako Euskal Unibertsitatea gure hizkuntzaz baliaturik maila guztietako jakintza atxekitzeko, lantzeko eta bultzatzeko asmoz sortu zen. Denbora berean, ezin ukatuzkoa da, Euskal Herria berreuskalduntzeko bidea, oinarrian bertan bereganatzen duela, euskararen aldetik galdu diren herri-eremuak eta hizkuntza-mailak berriz lehengora, oraingo arropaz jantziarik, ekarri nahi dituela.

Hain zuzen ere, une honetan autonomiazko arlo batzu eskuratzeko bidean ditugula zabal baitabil gure artean, hizkuntzarenaz, irakaskuntzarenaz eta kulturarenaz Udako Euskal Unibertsitateak zerbait esan beharra ba duela uste du, Euskaltzaindiak bezala, azkenengo hau, euskararen batasunerako norma-emaile bakartzat alderdi guztietan hartu behar litzatekeena, dudatan jartzen ibili gabe, funtzio hori ez baitu batek baino gehiagok bete behar.

Hona hemen esan beharrekoa:

1. Euskal Herriari, egungo eguneon herri euskaldun bezala iraun ahal izan dezan, gutxieneko batzu eskaini behar zaizkio. Bat irakaskuntza alorrekoa da, utzi ezinezkoa eta premiazkoena. U.E.U.-k uste du, Euskal Herriko eremu osuan hemendik aurrera hezten eta eskolatzen hasten diren haur guztiek, hamalau urte betetzen dituzteneako, euskara behar den bezala mintzatzeko, irakurtzeko jakin dezaten, bideak ireki eta finkatu behar ditugula. Horregatik, asmo hori abiarazteko boterea eta posibilitatea eskuetan dutenei, azkenengo ondorioetara heldu arte erabil dezatela eskatzen zaie.
2. Beste bat, irakaskuntzarekin ondo loturik dagoena, komunikabide sozialen tresna modernoak erabiltzeko dagokio, eta bereziki, beste guztien gainetik agertzen baita jendeari sortzen dion eragin nabarmenagatik, telebistaren erabiltzeko. Gutxieneko, euskaldunok kanale oso



bat euskara hutsean behar dugu, haurrek, etxera doazenean, euskaraz ikasi dutenaren osagarri irudi bizietan izan dezaten, euskalduntze ahaleginetan ari diren nagusiek jolasean bezala finka dezaten ikasi dutena, eta euskaldun direnek zor zaien giroa eta solasa atseginez dasta dezaten, gure hizkuntzaren beharrezanik eza sentitzen dutela nahi ta nahiz ez erdal munduan murgildu beharrik izan ez dezaten, kanpoko berri jakingo bádute.

Jakina, kanale horri behar diren elementu tekniko eta ekonomiko guztiak eskaini behar zaizkio, Euskal Herriari zor zaion mailara iritsi arte.

Esan gabe doa, Euskal Herri osoko agintari eta erakunde guztiei gutxieneko putduok betetzeko bidean abia-


tzeko eskatzen zaiela.

3. U.E.U. irekirik dagoen erakunde zabalarekin denez gero, agintarien aldetik hainzaketzat hartu behar dela uste da eta diru publiko lagundu behar dela, Euskal Herriari eskaintzen dion eta etorkizunean eskain diezaiokeen bide-urratzeengatik.

Beste alderdi batetik, gure Herriko Unibertsitateetan titulua eskuratzeko egiten diren ikaskuntzetarako euskara erabiltzeko dagokion alorrean, geroago eta urrats gehiago eman daitezkeen eskatzen da, gure hizkuntzari tokatzen zaion lekua atxeki dadin arte.

Iruñean 1979-garreneko uztailearen 28-an.  
Udako Euskal Unibertsitatea.

## U.E.U.n bigarren hizkuntzaren irakaskuntzaz



Mikel Lasak: Irakaskuntza elebidunaz, gure herrian aurki daitekeen esperantza oso ahula da.

Aurtengo U.E.U.ren barruan, eta PEDAGOGIA sailean, eskola elebidunaren problematikaz aritu izan dira, eta ene ustez, oso ondo aukeratu izan da gaia mementu honetan, orain, eta arrazoi askorengatik, arlo horretan aldaketa handiak egiteko aukera edukiko baitugu.

Idea honetatik abiatuz, eta gaiaren inportantiaz konturaturik, hor saiatu da zenbait pertsona jo eta ke, azterketa ahalik eta serioena egin nahiz.

Honetan, lehen egunetan Mikel Lasak sarrerarako lan bat aurkeztu zuen ondoko puntuok ikutu zituelarik:

Hasteko, beste zenbait herritako esperientziak azalduz, hor aurkituen gauza on (Quebec-en frantsesdunei ingelesa irakasteko, Afrikako zenbait herritan frantsesa eta ingelesa, etab.) edo txarrak (txikanoei eta Estatu Batuetako indioei ingelesa irakasteko metodoen porrotak, adibidez) azaldu zituen ezagupen horretatik ondorio asko atera daitekeelakoan.

Modu honetan, eta esperientzia guzti horien ezaugarriak aztertuz, 2. hizkuntzan azaltzen diren hainbat faktore atera daiteke, eta faktore horien eraginari beraturuz, 2. hizkuntzaren arazoa konpontzeko ideiak bururatu ahal zaizkigu. Eta hala aurkitu ditu Mikelek beti agertzen diren faktoreak, eta soilik batzutan aur-

kitu ahal direnak ere, faktore horiek 2. hizkuntza ikasteko mekanismoetatik informazio handia ematen dutelarik. Eta hori da, prezeski, interesatzen zaiguna: 2. hizkuntza ikasteko dauden mekanismo eta bideak.

Lan praktiko eta enpiriko batetan oinarrituz, Mikel mekanismo horik ikasi ditu, gure kasuan hori ere aplikatu ahal izateko, ezer egin baino lehen, metodologia onena edukitzea interesatzen baitzaigu, ahalegin minimoetatik, ahalik eta gehiena atera ahal izateko.

Eta azterketa hau amaitu ondoren, ondorioetara pasatu zen, hots, irakasle bat edo multzo bat zerbait norbaiti irakasten hasten zaionean, ea noraino heletzea espero duen, hau da, irakaskuntza horren ondorio edo erresultatuak. Eta gure kasuan, zera pentsatzen du Mikelek, gure herrian aurkitu ahal den esperantza oso ahula dela, hots, guttiz konformatzen garela, gehiegi ez diogula eskatzen egiten dugun lanari, geure ahalmenaz konfidantzarik ez bagenu bezala. Eta horrek guztiorrek mugapen handia dakar, irakaskuntza elebiduna planteiatzerakoan.

Agertzen zaigun beste problema bat, eskola elebidunen tipologia zehaztea da, ezin baita edozein egoeratan metodo bererabildi, noski. Orain arte hori gertatu

da, askotan, edo hobeto esan, ia beti, zeren edozein talderekin, eta irakaslearen borondateari esker izan ez bada, ez baita orain arte metodo desberdinik erabili, talde edo ikaslearen ezaugarrien arauera.

Beraz, eta metodologia on baten atzean ibiliz gero, hori egin behar garrantzitsuenetariko bat da, zenbat metodo ezberdin aurkitu behar diren jakitea derigorrezkoa baita.

Eta azkenez, aurrekoa egin ondoren, geratzen den beste arazo batetaz ere aritu zen, hau da, erabili ahal eta behar den materialeaz, honekin amaitu zuelarik.

Hurrengo egunean, eta aurreko lanaren osagarri gisa, Xabier Mendiguren 2. hizkuntzaren metodologiaren oinarrietaz aritu zen, honelako metodologia batek beti eduki behar dituen ezaugarriak zehaztuz, berauetatik abiatuz, metodologia egoki bat egitera pasatu ahal izateko, bere lan hau, batez ere, ikasle erdaldunekiko irakaskuntzari zegokiolarik.

Eta gaiari amaiera ematearren, eskola elebidunen tipologiaz aritu ziren sakonkiago, horrela metodoen nolakotasun eta zenbatasuna argiago geratu zelarik.

Ea guzti honetatik zerbait praktikorik egiten den, eta sarritan jotzen den moduan, hori mementu honetan guztiz beharrezkoa zaigu eta.

Maria Jesus Esteban



# JAKIN

## EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabetero

Hamargarren  
zenbakiaren gai nagusia:

**Arrantza  
Kultura  
Irakaskuntza  
Kanta Berria**

Linguistika eta Herrigintza

Puebla 79

Rikardo Arregi;  
hamar urte geroago

—oOo—

900 pta. urtean.  
275 alea

Eskabideak  
eta harpidetza:  
Gral. Mola, 23-1.º  
Donostia  
Tel. (943) 27 17 13

# anaitasuna

## HARPIDEDUNA!

Gurekiko harreman guztietarako aipa ie-  
zaiguzu, zure zenbakia.

BIZKAIA  
HAMABOSTEROKOA

## URTEKO ABONAMENDUA:

EUSKAL HERRIA: .....1.200 pezeta /75 F.F.  
ESPAINIA eta FRANTZIA.....1.500 “ /93 “  
EUROPA eta AMERIKA.....1.600 “ /23 U.S. d.  
Beste herri guztiak.....1.700 “ /25 U.S. d.

ALDIZKARI hau IRAKURRI NAHI baduzu, bete  
ezazu argi, ondoko txartela eta bidal helbide hon-  
tara:

**ANAITASUNA**

**ZABALBIDE 68., BILBO-6**

**POSTA KAXA : 495**

**Tfno. bakarra: 94-4335808**

Izen deiturak.....

Bizilekua.....

Herria eta Posta Barrutia.....

Bankua eta kontu irekia..... Tfnoa.....

# VII. UEU ZENBAKITAN

## UEU

Uztailaren 29a. Udako Euskal Unibertsitatearen VII. ekitaldia bukatu da. Jadanik, Martin Orbek azken eguneko batzarre orokorrean esan digunez, VIII. ekitaldia hasia da, urtean zehar egiten eta prestatzen baita, Udako agerpena duen Unibertsitate hau.

Ekitaldia bukatzean, egoki da, pasatuaren balantzea egitea. Eta balantzea ikuspuntu askotatik egin daitekeen arren, guk hemen balantze estatistikoa eginen dugu, zenbakien esagura handia baitute, beren hoztasunean bada ere. Datu hauk, UEUko prentsa-bulegoak eginiko lanetik hartuak izan dira.

### EGINTZA AKADEMIKOAK

Aurtengo lanorduak honela banatzen dira:

<i>Ikastaldiak</i> .....	141
<i>Mintegiak</i> .....	112
<i>Laborategiak</i> .....	8
-----	
<i>Denetara</i> .....	434 lanordu

Egintzen artean, aurreko sailkapenetik nolabait aparte geratzen direlarik, hauek aipa ditzakegu: Sarrera-hitzaldia, bi tesi-naren aurkezpena, barazkijaletzari buruzko hitzaldia, Einstein-en omenaldia, Iruñeko udalaren errezepzioa, J.M. Barandiaranen hitzaldia, Irurtzuneraren eginiko hiru irteerak eta batzarre orokorra.


### PARTAIDEEN ESTADISTIKA

Datu hauk, UEUko matrikulatzean partaideek beteriko inkesta-horrietatik lortuak izan dira. Aurrera segitu baino lehen, aurtengo matrikulatuak, denetara 348 (hirurehun eta berrogeitazortzi) izan direla esan behar dugu. Ondorioak koadro desberdinetan emango ditugu.

Partaideen jatorriaren arauerakosailkapena  
1.- Jaiotze-probintziaren arauera



Irurtzunen lanean



Kimikako Laborategia.

<i>Araba</i> .....	0,9 o/o
<i>Bizkaia</i> .....	46,1 "
<i>Gipuzkoa</i> .....	40,4 "
<i>Ipar Euskal Herria</i> .....	1,6 "
<i>Nafarroa</i> .....	6,5 "
<i>Beste</i> .....	4,5 "
2.- Bizi direneko probintziaren arauera	
<i>Araba</i> .....	1,5 o/o
<i>Bizkaia</i> .....	54,4 "
<i>Gipuzkoa</i> .....	33,3 "
<i>Lapurdi</i> .....	1,5 "
<i>Nafarroa Garaia</i> .....	7,5 "
<i>Nafarroa Beherea</i> .....	0,9 "
<i>Beste</i> .....	0,9 "

Pertsonen izakera, adina, sexua, ezkon-egoera, eta beste kontutan hartuz, honelakoak izan dira partaideak.

### Adin-egitura

<i>15 - 20 urte</i> .....	20,4 o/o
<i>21 - 30 "</i> .....	57,3 "
<i>31 - 40 "</i> .....	17,6 "
<i>41ez gorakoak</i> .....	4,6 "



Tesina aurkezten: Edurne Biritxinaga, ondoan J.R. Etxebarria



Tesina irakurtzen: J.M. Txurruka eta Sira Aihartza

Batezbesteko adina..... 27,7 urte

**Sexuen sailkapena**

Gizonezkoak..... 50,4 o/o  
Emakumeak..... 49,6 "

**Ezkon-egoera**

Ezkonduak..... 24,5 o/o  
Ezkongeak..... 75,5 "

Partaideen ikasketa-maila analizatzea ere

oso interesgarria gerta daiteke. Horixe da, hurrengo koadroan batu nahi izan duguna.

**Partaideen ikasketa-maila**

Batxileratua..... 31,8 o/o  
Heziketa Profesionala..... 4,8 "  
Unibertsitate-mailakoa..... 63,4 "

**Euskararen ezagutza**

Betidaniko euskaldunak.... 69,6 o/o  
Euskaldun berriak..... 30,4 "

Euskarari buruzko ezagutza kontutar hartuz, esan beharra dago, ezen jende askok euskararen ezagutza justifikatzeko titulua dutela. Hain zuzen ere, partaideen 48,2 o/o-k tituluren bat dute, zer esanik ez, nagusien Euskaltzaindiko D eta B mailakoak agertzen direlarik.

Beste zenbaki asko ere eman daiteke, baina artikulua gehiegi ez luzatzeko, emandakoekin bukatuko dugu. Irakurleak zerbait ba du, VII. UEU horren garrantziaz jabetzeko.

J.R. Bilbao

# COLOMBIA: DIKTADURAREN KONTR

Diktaduretaz edo eta sistema faxistetaz hitz egitean, noiz ez da Argentina, Uruguay edo eta Txile aipatzen? Bai, zoritxarrez, hiru herri horik Hego-Amerikakoak dira, eta ez dira, gainera, salbuespenak, ez baita hango estatuetako demokrazia kontinente haren ezaugarria. Hau da, herrialde batzu oso ezagunak badira han dagoen demokrazia eta askatasun ezagatik, ia guztietan gertatzen da gauza bera. Hori da, adibidez, Colombian jazotzen dena.

Lehen begiradan pentsa zitekeen Colombiako egoera ez dela hain txarra, zeren bi urtero hauteskunde legislatiboak, eta lau urtero, presidentzialak, baitaude. Eta, gainera, konstituzio bat daukate. Baina zer bait argitzeko, hurbil gaitzen pixka bat hango egoerara, aldi berean, iraganari begirada bat botaz.

XIX. mendean independentzia lortu ondoren, gudu ugari egon ziren herri hartan; XX. mendearen lehen erdiko politika, eta hainbeste lekutan bezala, liberalen eta kontserbadoreen alternantzia oinarritzen zen; 1946. urtean, eta ohitura horri jarraituz, liberalak gobernutik irteten dira, lekua kontserbadoreei utziz. Hauen gobernupean, eta bi urte beranduago, ezkerreko lider bat hil zuten, orduan herria protestaka altxatu zelarik. Errepresioa handia izan zen eta handik aurrera, eta 5 urtetan zehar, herri oso burruka krudel batetan sarturik ikusi zen. Gerra oso gogorra izan zen, eta hor egin ziren basakeriak ia sinestezinak dira. Gerrila urte horietan sortu zen, eta orain arte ez da inoiz gelditu.

1953. urtean estatu-kolpe bat eman zuen Rojas Pinillasek, eta, orduan, bai liberalak, bai kontserbadoreak ere oso pozik sentitu ziren, indarkeriaz jadanik nahiko baitzeukatzen.

4 urte beranduago, hots 1957. urtean, liberalek eta kontserbadoreek Fronte Nazionala eratu zuten, horrela, eta 17 urtetan zehar, bien alternantzia oinarritzen zelarik. 1974. urtean hauteskunde presidentzialen kasuan, alderdien

askatasunera bihurtu zen, baina administrazioan alternatziarekin segitu zuten.

Urte horietan guztiotan, gerrilak aurrera segitu zuen, noizean behin, eta batez ere hirietatik at, kolpeak emanez.

Konstituzioan ba zegoen gobernuari eta militarrei oso ondo zertorkien posibilitate bat: setiapen-egoera deklaratzekoa, halegia. Gobernuak, momentua edo gertaerak grabeak zirela kontsideratuz gero, eta lege horren bidez, garrantia demokratikoak ken zitzakeen. Lege hori 1948-1958 hamarkadan izan zen erabilia, baina nahiko ez zela pentsatuz, 1975. urtean Lopez Michelsen lehendakariak konstituzio-

an aldaketa bat egitera saiatu zen, baina ez zuen lortu egin, tribunal gorenak antikonstituzionaltzat jo baitzuen. Beraz, eta Asegurantza Sozialeko langileen greba bat zela eta, Lehendakariak setiapen-egoera deklaratu zuen berriz.

Aurrerantzean, eta nahiz eta greba hori laster zapaldua izan zen, ez zuen inoiz dekretu hori deuseztatu, eta 1978.eko abuztuaren hileko hauteskunde presidentzialerako ere ez zuen egin.

Turbay Ayala jaunak, hots, lehendakari berriak, aurrekoaren ideia berberak zeuzkanez gero, lege berri bat proposatu zuen, Seguritatezko legea, eta presioa egin ere Tribunal goreneko epaileengan



# AKO BURRUKA LUZEA.

Eta errepresioa aspalditik handia bada ere, M. 19 taldeak urtarilean harmadari 5.000 harma lege hori konstituzionala deklaratu zezaten. Handik gutxira, setiapen-egoera deuseztatuko zuela agindu zuen, baina honen ordez, lege berria konstituzioan sartuko zen. Beraz, lehen baino txartoago.

Aldi berean, herria eta klase zuzentzailea gero eta urrunago zauden, egoera sozio-ekonomikoa hondagarria izanik. Grebak sarritan gertatzen ziren, eta talde hartuek gero eta ekintza gehiago antolatzen zituzten maila guztietan. Talde horien artean ezagunena dena M. 19, eta oso famatua egin da aurtengo hasieran egin zuen harma-lapurketagatik. Erraz konpreni daitekeenez, errepresioa itzela da, legeek ia edozer permititzen baitiete gobernu, polizia eta epaimahaietako pertsonen. Komunikabideetan ez dago askatasunik, ez dago batzarre edo eta manifestaziorik egiteko posibilitate legalik, ez dago preso defentsarako garantiarik, edozein gauza ordena publikoaren kontrako kontsideratuz gero, pena itzelak aplikatu daitezke,...



partu ondoren, asko gogortu da. Ordutik hona, hamaika pertsona izan dira geldieraziak, kontzentrazio-zelaietara eramanak, torturatuak, hilak, etab., etab.

Martxoaren amaieran kongreso bat ospatu zen Bogotan, askatasun demokratikoen alde indar egitearren, eta hau, oso ezagunak diren idazle, abokatu, politikariak, etab., egon ziren; kongresuan (Askatasunaren forum deiturikoa) herrialde horretako askatasun eza, eta egiten diren torturak salatuz izan ziren.

Hala ere, egoerak berdin dirau, eta lotsagarria eta salagarria da azken hilabeteen, hots, ekainean, Turbay Ayala lehendakaria Europara zetorrela, estatu demokratiko batena bezala agertu nahia.

Bidaia hori zela eta, herri askotan funtzionatzen diren Colombiako giza-eskubideen aldeko komiteek batzarre bat egin dute Parisen, bidaia horrekin batera ea zer egin ahal zen pentsatzeko, erabakiak aipagarriak izan dira, zeren hartutako neurrien artean ondoko hauek baitzeuden:

- Europako estatu guztietan (batez ere), Colombiako egoera salatzea eta horretaz informazio zabaldua ematea.

- Lehendakariak bisitatuko zituén estatu eta hiri guztietan, manifestaldiak, mahai-inguruak, gose-grebak, etab. antolatzea. Modu horretan lortu nahi zena hauxe zen: ofizialki eman nahi zèn irudia apurtzea.


Aldi berean, zenbait lekutan, hango burrukaren historiaz, errepresioaz, torturen existentziak, eta abarretazko dokumentuak argitaratu dira. Eta dokumentu horiek prestatu dituzten colombiarrek hauxe diote: Txile edo Argentinako egoera txarragoa da agian, bai, baina hara heldu baino lehen, eta prezeskiago hori eragozteko, kanpaina honi eman diote hasiera, gauzak apurka-apurka txartoagotu beharrean, beren herriak behar eta nahi duen askatasuna lortzeko burruka aurrera egin dezan.



Turbai Ayala poliziaren egunean

Maria Jesus Esteban

# IRAK: ZAPALKUNTZA GOGORRA DAGOENeko BESTE HERRI BAT



Azkenengo denboretan, eta nahiz eta leku askotan ez izan, Irakeko gertaeretz pixkat enteratzeko aukera eduki dugu; eta horrela izan bada, gaiaz hitz egitea askori interesatzen ez zaielako da.

Askok galdetuko diozue zeuen buruari ea zertaz hitz egiten ari naizen, eta arrazoiak daukazue, gure herrian ez baita gai honetaz ia ezer esan. Beharbada jakingo

duzuen zera da, herri hartan nahiko gobernu progresista zegoela, zeren egia baita urte batzutan zehar horrelako zerbait gertatu dela.

1971-1972. urteetan, eta petrolioaren monopolioen kontra egitearren, nazionalista eta aurrerazale ziren taldeak batu egin ziren Fronte Nazionala eratzeagatik. Zenbait urtetan zehar, eta koalizio ho-

rren linean segiturik, petrolioaren explotakuntza nazionalizatu zuten, herri sozialistekin ekonomi hitzarmen ugari egin, egoera soziala nahiko demokratikoa zen, masak antolatzen hasi ziren, etab.

Politika hau oso ona izan zen Iraketan, zeren monopolioen aurkako garaipeak maila guztietan lagundu baitzuen: ekonomi mailan, ba zegoen diru-

rik planak aurrera eramateko eta atzeraturik zeuden sektorei bultzada bat emateko; Sozial mailan ere, solidaritate handia sortu zen indar progresista guztien artean, eta kontzientzi maila asko igon zen.

Momentu hartan, gobernuan indar gehien zutenak Baath alderdikoak eta komunistak ziren. Baina gauzek ez zuten horrela luzaro segitu, eta apurka-apurka, oso zuhurki batzuren aldetik, egoera gero eta txarragoa bihurtu zen.

Eta hori gertatu bazen ondoko arrazoiengatik da: Baath alderdiaren inguruan mugitzen zirenen artean idea hauk zebiltzan:

- Irak nahiko ondo zebilen diruz, eta beraz, garapen-prozesua aurrera eramateko medio ugariak zituen, inori laguntza eske ibili gabe.
- Garapenak arina izan behar zuen, eta helburu gisa, aberri arabe baten eredu baathista proposatzen zuten.
- Irak-en modernizazioa aurrera eramateko, munduan zeuden teknika eta mediorik oneneak erabili behar ziren, eta hori egiterakoan, ez zen zertan hori ematen zuenaren tendentzia politikoz arduratu behar.
- Teknologiarik zegoen, herri sozialistak atzeraturik zebiltzanez gero, herri kapitelekin harremanetan sartzea derrigorrezkoa zen.
- Tendentzia hauek gero eta indar gehiago eduki zuten eta laster influentziatu zuten estatuaren politika-bidea:

- Planifikazioa alde batetara utzi zen.
- Herri kapitalistekiko harremanak gero eta handiagoak, arlo guztietan, bai sal-erosketetan, eta baita akordio zientifikoetan ere.
- Multinazionalak Irak-eko kontratu handienak bereganatu zituzten.
- Inflakzioak gora egin zuen berehala.
- Burokrazia eta burjesiaren berritze eta indartzea izugarriak izan ziren, bi klase horiek beraien arteko loturak hestuzten zituzten aldi berean.

Neurri hauk gero eta zabalagoak egiten ziren heinean, ezkerreko protestak hasi ziren, hartutako bide okerretik ateratzeko itxaropena galtzen baitzuten. Baathekoek laster konprentitu zuten kontrako jarrera hori arriskugarria zela beraien interesetarako, eta maila sozialean ere, neurri gogorrek hartzen hazi ziren, hala nola:

- Kurdoen kontrako ekintzen ugaltzea.
- Estatuaren aparatuen garbiketa, leku nagusienak baathistentzat utzirik.
- Unibertitateetatik eta beste irakaskuntz zentruetatik, komunistak eta



gainontzeko beste ezkertiar guztiak botatzen saiatu egin ziren, eta lortu ere.

- Lantegietan gero eta posibilitate gutxiago uzten ziren langileei, edozein lan politiko edo sindikal egin nahiz gero.
- Laster, errententzioak ere egunoroak bihurtu ziren, batez ere jendea-ri beldurra sartzeko idearekin.

Egoera hau areagotuz joan izan da geratu gabe, eta azken urtekoa kezkatzeko da benetan, zapalkuntza bizitzaren maila guztietan agertzen baita:

- Baath alderdia jadanik guztiz boteretsua da, Fronte nazionala apurtzat eman ahal delarik.
- Ezkerraren kontrako kanpaina gogor-gogorra egin da, influentziako postuetatik ezkertiarak bidaltzea ez baita jadanik ezer, gartzelaratzeko egunoroko gauza bihurtu baita.
- Kurdoen herriaren gaineko zapalkun-

tza izugarria izanik, mendietara joateko bortxatuak ikusi dira.

- Eta ekonomia aldetik, katea kapitalistareta multinazionalak ondo sartuta daude.

Lehen esan dudana bezala, oso gutxi hitz egin da guzti honetaz munduan zehar; egia esan, Irak-en ezkertiarren dei desesperatua hartu nahi izan dutenek izan dira arazo hau aipatu duten bakarrak.

Baina zein ulergarria den guzti hau! Irak-ek orain daraman bidea, eta Siriarekin batuz gero, etorkizun hurbilean eramango duena, oso interesgarria da mundu kapitalistarentzat, orain eskua sartzeko oso erraza baitzaio, aurreko bideari jarraituz gero, gertatuko ez litzatekeena. Beraz, eta hainbat lekutan gertatzen air den bezalaxe, apoio osoa ematen dio Baath alderdiari; honelatan, Irak-eko zapalduak bi itxaropen geratzen zaizkie soilik: beraien indarrak daukatena, eta munduko beste zapaldu guztiei egin dieten deiarena.

Maria Jesus Esteban

# TXINAN AGUR



Hua Kuo Feng, oraingo presidentea sozialismoari azken agurrak egiten.

NAZIOARTEKOA

Aurreko artikuluan esaten genuen moduan, bi joerak elkarrekin konpondu zirela luzaro Txinaren zuzendaritzan, azkenik joera errebisionista garaile atera zelarik. Hau hala gertatzeko arrazoa, linea iraultzaileak frakasatu egin zuela da. Azter ditzagun bada, honen arrazoiak.

Lehenego eta behin esan beharra dago, Txinaren klase azterketa eginda ez egoteak, era guztietako

erantzunak mugatzen dituela eta, halaber, balio zientifikoa kentzen. Gainera, tresna hori ez izateak, linea iraultzailearen galeraren arrazoietariko bat izan zen. Esan behar da ere, errebisionistak azterketa hori egitearen kontra atera zirela. Berauek onartzen zuten klase azterketa bakarra kapitalismo garaiari zegokiona izanik, ez zuten onartu nahi sozialismorako bidean ere klaseak daudenik. Dirudienez,

azterketa hori egiteko premiazko diren kontzeptu teorikoak falta zituzten; izan ere, sozialismobidean Produksio Erlazioak nola ematen diren jakiteak debate bat eta ikerketa lan bat eskatzen du, Txinan egin ez zena.

Linea errebisionistari aurpegi emateko, iraultzaileek aliantzak bilatu beharra ukan zuten. Aliantza hau klase ikuspegi batetik ez egitean geroagoko galera-



# SOZIALISMOBIDEARI (II)

ren beste arrazoi bat izanen dira. Hauxe jazo zitzaion

Linea iraultzaileak ez zuen erdietsi gehiengoa Partiduaren zuzendaritzan. Honek adierazten du masak ez zeudela beraiekin. Ikus ditzagun honetarako arrazoiak.

Linea iraultzaileak ez zuen ukan ahalmenik masak zuzentzeko. Batetik, Txinako populazioaren gehiengoa herri nekazaria izanik, edozein ekonomi aurrerapenak honengan ukanen zuen eragina ukaezinezkoa da: Bizitza maila hobetu eta abar. Honetan linea errebisionistak zuhurrago jokatu zuen eta "Lau Modernizazio" linearekin sektore honen sinpatiak bereganatu zituen.

Bestetik, linea iraultzailearen basea langilego eta ikaslegoa ziren, barauk Txinan gutxiengoa izanik; herri sektore hau oso zati-turik zeuden eta zuzendaritza politikorik barik. Datu bezala: Shanghai-ko Komunaren mugimenduan (Txinan langile boterea jasotzeko egin zen ahaleginik serioena) hogeitamar masa erakundetik gora zeuden, elkarrekin konpondu ezinik gainera. Hemen, bere atzetik masak eroango zituen aitzingardia baten premia ikusten da, hau da, Txinako Partidu Komunista. Hau, ordea, ez zen gai lan hori burutzeko. Ondorioz, linea iraultzaileak bere indar garrantzitsuena galtzen zuen.

Hau guztionen ondorioz, linea iraultzaileak Partiduaren zuzendaritzan gutxiengoa izanik, postuen aldeko burruka bat eraman zuen, non dena pertsonalizatzen baitzen eta inolako burruka politiko serioerik ez zen agertzen. Lan honetarako, errepresioaz baliatu zen eta masa komunikabideen manipulaketaz ere. Honek guztionek, masengan konfidantzaren galtzea erakartzen zuelarik.

Mao hil ondoren Txinako Parti-



Txinan orain modernizazio dute helburutzat

du Komunistan ehundako mugimendua gertatzen da, linea errebisionistak gidaturik. Azkenik, Hua Kuo Feng (gaur Presidente dena) Estatu Kolpearen bidez zuzendaritza hartuko du. Hurrengo hilabeteotan, aurreko urteotan errebisionistatzat joak izan zirenak eta horregatik Partidutik baztertuak, boterera itzultzen dira.

Nahiz albiste askorik ukan ez, jakin, jakiten da errepresioa lu-

rralde gehienetara ailegatu dela, hainbat erahilketa eta atxiloketa-rekin batera.

Txinan masak oraindik liluraturik daude Modernizazioarekin, baina laster, honen ondorioak ikusiko dira: lanaren gehitze etengabea eta denborarekin errentaren mailetan gero eta alde handiagoak. Orduantxe altxatuko da erdi lotan dagoen Txinatar tigrea.

Mendizabal

## SOZIOLOGIA, POLITIKA ETA ASTIGATIAK IRRER

Oskorri hirukote bihurturik, LP bikoitz batekin itzuli zaigu



Gure musikaren munduan aspaldiko laguna dugu Oskorri. 1971.etik behargin nekagaitzak. Beren lanaren erakusgarri, burutu dituzten hiru albumak ditugu. Gure herriko lantegi, herri eta Unibertsitateetan zehar milaka ekitaldi egin dute. Gizona, politika eta herri kantagintzaz dituzten ideiak argi argiak dira. Batzuren eziferentziaren aurrean, eta beste batzuren borondate ilunaz, jadanik edaguna zaigun soinu modu bat erdietsi dute. Eta hasieratik kalitatezkoa izan den soinu hori, eragingarri bilakatu zen eguneroko lan ekinaz. Zeren, gure herriak planteiatuak dituen eginkizun musikalki guztiak solidarietate hestuan, lan hori herri premia batzuri lotuz gero, zerbitzu ederra egin baitaioke herri bati, sorkuntza artistikoaren bide zuzenetik.

### SOZIOLOGIA-OSKORRI-GIZA ASPEKTUA

Anaitasuna.: Talde baten fenomenologia, bizi den gizartearekin paraleloa da. Honek zuzenki afektaturik dago, eta honekin batean joan ohi da. Nolako ondorioak sortarazi ditu prozesu honek Oskorriengan?

Oskorri.: Bai, argi dago afektatzen duela.

Gu definitu gaituen gauzetarik bat, gizartean murgildurik izatea izan da. Guk hainbat gauza izatearen itxura dugu, baina horien artean ez dago, burjes zentzuan artista izatearena, hots, idolki baten gainera iganiko musikoena. Musiko eta kantari legez, geure lanean igarri dugun aldaketarik ohargarriena, faxismo garaian murgildurik ginen militantzia doblearen barnean eman da. Zuzenki dihardugun kultur arloan ahantzi barik, bizi ginen egoerarekiko kontzientziapen eginkizun bat genuen. Egoera hura mantendu egiten da gaurregun ere, beste modu batez, baina sasoi hartan askoz gogorragoa zela onetsi behar. Jendearengan dukegun eraginaz kontzientzia eta erresponsabilitate hartze hori, gaur egun ere ematen da guran, bestelako nabardura batzuerkin. Gaur egun, musikoaren eginkizuna, konkretatuago dago bere sortze ahalmenaren inguruan, eta bere jarrera politiko publikoaren arazoa, mitinek, manifestazioek eta alderdi politikoaren multzoak asumitua gelditu da. Aurreko sasoiaren geu ginen noiabait alderdi politiko horien ordezkartza eroaten genuenak. Gaur, inork —edo ia inork— ez du jutzen euskal kantagintza zerbait politizatzaile eta politizatu bezala. Euskal musika egiten dihardugunon eginbeharraren funtsa, egun, kanpotik datozkigun musikengandiko independentziaren alde burrukatzean datza, edo, gehiegi kontsumitzen diren musika horien aurrean alternatiba baliagarri izatean, haik gure nortasuna deuseztatzeke eta alienatzeko bideak izan daitezkeela uste baitugu.

A.: Zelan adieraziko zenigukete Oskorri gizakumearen garrantziari ematen dion lehentasun hori?

O.: Guk, egiten dugunaren kontzientzia soziala daukagu. Ez dugu lan hau betetzen geure buruak errealizatzeke, zere gure ustetan, errealizaketa hori erdietsiko dugu, bizi garen errealizatzeko kolektiboaren zeredozer aporteratzen diogun neurrian, hots, Euskal Herriari eta guri bereziki interesatzen zaizkigun honen zatirik herrikoienei aporteratzen diogun neurrian. Horixe duzu guk gizakumeari ematen diogun garrantzia. Honek ez du esan nahi, egiten dugun guztiak, aurretiaz programaturiko zerbaiti erantzuten dionik. Honelako lan kreatzailetan, arrazoi eta desarrazoi subjektibo ugari ematen da, nondik datozen ere ez dakitzagunak, baina egiten dugun musikarentzat eragingarri direnak. Nahiz eta popularen zerbitzuaz dugun kontzientzia osoa izan arren, ez du horrek esan nahi, dena guztiz eskema errealista batzuren barnan planteiatuak dugunik. Gure ustez, gizarte honen oreka ez datza bere kuestio errealistean soilik, baizik eta bere ipuin, kanta eta istorioetan ere.

### OSKORRI ETA BOTERE IDEOLOGIKOAREN ERROAK

A.: Zuen gaurko planteiamendu musikaletan, nagusi al da oraindik ere gure herriaren askapen nazional eta sozialaren kontzeptua?

O.: Talde bezala orain daroagun burruka, eguneroko gure kultura, hizkuntza, preso eta abarren alde egiten dugun ahalegin konkretatzen da. Herri kantagintzak, azken orduko albistea ateratzen duen egunkaria izan behar du, jatorriaren sorburua den hesparu historikoa iker-tuz. Inork ezin esan dezake, gure oraingo obraren oinarriak sektario edota alderdi-koiak direnik, bestelako zentzu erralago batez kantatzen baitiogu maitasunari, eta

gure xedearen artean, tradizio musikalen berreskuratza sartzen baita.

**A.:** Kantagintzaren munduan ari zareten egoera laborala, ia langabezia osoa dela esan liteke. Euskal Herrian ere ematen da nolabait hori. Kezkatzen al zaituzte honek?

**O.:** Guttiago edo gehiago egoera horrek kezkatzen gaitu, bai, eta ez maila pertsonaletik begiraturik, bizitzeko behar ditugun medio ekonomikoak ez baitira asko. Baina herri kantagintzaren egoera zail honen arrazoiek kezkatzen gaituzte. Sistemak herri errebindikapen guztiak irensteko dituen posibilitateak asko dira, jendea banatuz, errebindikapen horik asumituz kontsumo bilakaturik. Bestalde, herri

musika mailan, baieste nazionalaren printzipio bat izan daitekeelako ustea. Hain hedatua ez den beste faktore bat, gu euskaraz kantatzen jarraitzea duzu. Hizkuntza sinbolo bat izan daiteke behar bada. Gauden mementuon, alderdi edo sektore abertzaleetarik erradikalduenek ere ez dute normalki euskara erabiltzen. Gure eritziz, euskara gure kulturari jazotzen zaionaren irudi izanik, lehentasuna eman behar diogu eta erabili. Krisialdi bat nabari da gaurregun euskararen erabilkuntzaz, sinbolotzat erabiltzen ohi da. Horregatik, sekula baino indar handiagoz, euskarak gure hizkuntza izan behar litzatekeela uste dugu, nahiz izan ez, eta gure kultura, euskalduna izan behar litzatekeela, horrela ez delarik ere.

diren beste gizarte eta kulturei erantzuten dieten beste taldeen balorazioak egin nahi izan gabe, gure artean horixe gertatzen da zoritxarrez. Politika arazo konkretuetan, Euskal Herrian, deslilurapen edo bortizkeria guztiak, erakunde biolento batzuzentzako txaloen itxura izan lezake zenbaitetan, baina erakunde horietan parte hartzeak suposatuko lukeen konpromezua, guztiz bazterturik. Neuri-dio Natxok- gustatuko litzaidake erakunde hauen alde aldarrikatzen ari den jendeak, horietan zuzenkiago parte hartzea, orduan gauzok diferentiek lirateke. Gu ez gaitu salbatuko ez Moises-ek ez beste inork, horregatik, jendearen partaidetasun kolektiboak alda dezake egoera hau. Eta noski, sistema kapitalistaren mekanismo nagusiak, kontrako jarreretara eroaten gaituzte. Nor bere etxea geldidadin eta bere protesta partikularra azal dezala, alkohola, porrua, rock edo folkaren bidez, indibidualki eta ez hobe litzazigukeen moduan, kolektiboki. Zorionez guretzat, Europako -agian mundu osoko- herririk organizatuenan bizi gara eta... ondo! pozik eta arnasa hartuz kutsadura izan arren.

## OSKORRI ETA HERRI KANTAGINTZA

**A.:** Nolako izan behar luke kanta horrek eta zein hesparrutan behar du mugitu?

**O.:** Hasteko, kantagintza herrikoa eta komertziala guztiz desberdinak dira. Planteiamenduak z dira berdinak. Herri kantagintzan liberekin pertsonala handiagoa duzu, gustatzen zaizuna egiteko. Helburu konkretu batez egin daiteke lana, nire ustez, kontsumoaren kontra burrukatzea izan behar duena. Bestalde herri kanta, dirutik sorturiko giro sofistikatuetatik aparte gelditzen da.

**A.:** Merkatal kantagintzaren arloan ematen ari den ideien krisialdiaz, zer uste duzue herri kantaren bideragarritasunaz?

**O.:** Bideragarritasuna erlatiboa da. Iraultzaren moduan, nahiz eta honek sortarazten digun konfidantza murgildurik jarraitu. Historian zehar, mementu egoki eta desegokiak gertatzen dira iraultza, iraultzaile eta herri burruketarako, gauza bera gertatzen dela esan daiteke herri kantagintzaren arloan. Kontsumo musika den libertimendu programatu, merkaturatu eta industrializatuen aurreko burruka alternatibatzat dakusagu guk herri kanta. Bideragarri izatea egiten duten faktoreak, hainbat arazori lotuak zaizkio. Gure kasuan bideragarria da eta beste toki batzutarara so eginez gero, nahasmendua arlo sozialean, are handiagoa dela ikusiko genuke. Hemen ba dugu masa mugimendu erradikal eta zabala, burjeserriak eta zentralismoak onartzen ez dituen errebindikapen batzutan planteiatzen dituen, eta honek lagundu egiten du herri kantaren bideragarritasuna. Gaur Euskal Herrian ematen diren planteiamendu garbiekin burruka gaitzen artean, kontsumoak jartzen dizkigun tranpetan erortzen ez garen artean, gure problema materialen konponbidea izanen liratekeen festaretoetan kantatzeko eskaintzak onartzea, esate baterako, geure planteiamenduetan traizio egitea litzateke, nolabait. Honela jarrai gaitzek artean, segituko dugu. Eta gure buruekiko eta gure jendearekiko prestutasuna guttitu gabe, egoera honen iraun dezakeela uste dugu. Eta hola ere pentsatzen dugu, hori herri honen ga-



kantagintza, industria osoak bultzaturiko korronte musikalki indartsuak bere kontra izateaz gainera, ohorezko salbuespenak kenduta, ez da izaten kalitate handiduna. Langabezia izatea normaltzat jo liteke, baina ez da normala honek iritsi duen maila, herri kantaren bidez kolektibitatearen zerbitzutan gaudenon artean.

**A.:** Politika alderditik begiraturik, Oskorriren oraingo egoera problema politiko ofizial edo estrukturalak planteiatzen al ditu egun ere?

**O.:** Ofizialki ez dugu ia problemarik. Demokraziak zeredozertarako balio izan badu, gauza minimoentarako izan da. Den den, gaur zentsurarik handiena pasotismoa da guretzat. Batetik, hemen ba da desliluraturiko anitz jende, hoberena, ahalik ondoen pasatzea dela pentsatzen duena. Jende honek, irratitik etengabe ateratzen den rocka entzutea hobe dela erabaki du. Ez dute horretarako eginahal handirik egin behar, edonon entzuten baita. Hortik abiatuta eta beren buruak justifikatzeko premia sentitzen dutenez gero, Alabamako "bluesman" bat "el copón" dela esatera iristen dira, eta honi Bermioko trikitilari bati aitortzen ez dieten kategorian ematen diote. Nahiz eta guretzat Bermiokoak kategorian handiago izan, neuk erabiltzen dudanak hurbilago den hizkuntza bat erabiltzen baitu. Bestalde, oso hedaturik dago, egiten duguna,

**A.:** Taldean, ezker erradikalezko ideologiak dira nagusi. Nazioarteko mailan, 68.eko Maiatza frantsesean inspiraturiko talde batzutatik, europar eskuin berriaren sortzeaz hitzegiften denean, nola dakusazue marxismoa eta eritzi korronte berri hauk ematen diren moduz?

**O.:** Herri kantagintzan sentitzen denaren oinarria, pasotismoa, dislilurapena, etab, klase burrukan dago argi eta garbi. Zoritxarrez, sistema burjesa biziki sartua dago geure artean eta hau errealtate gordina dugu. Jendea ilusioz betetzen da mementu jakin batean, ezagutzen den diktadurarik bortitzenetik ateratzen orain ere bortitza da, baina arropa desberdinak erabiltzen ditu. Gero ezkertiarak ei diren erakunde askoren jokabidea aski tristea izan da. Jendearen mobilizazioa geldiaraziz. Eskuina berkonpon zedin hainbat bide emanen da - horrela eskuinaren izen berriak agertzen dira, erdikoak, etab. Honean aurrean, jendearen esperantzak modu bortitza batetan azaltzen dira, eta musikaliki, aurreko sasoiaren alternatiba baliagarriak izan zitezkeen musikoak abandonatu egiten ditu, eta gaur egun nagusi ditugu rock madrildarra, traboltismoa eta herri kantagintzak baino kalitate gutiago aportatzen duten fenomeno komertzial berriak. Adierazpide bortiz horik, gure artean baino bizi, erreal eta benetazkoago



rapen politikoari loturik joanen baitzaio. Optimistak gara eta garaipenaz sinesten dugu. Bestalde geure ahalbide musikalen bideragarritasunaz sinesten dugu, eta hirugarrenez, gorrotatzen dugun musika bidearezin bihurtzeko posibletasunaz.

**A.:** Musiko herritarrek zeuen nukleo nazionalaren premia, kezka eta interesak ordezkatu behar dituzue, baina beste etnien kulturak lantzeko behartuak al zarete?

**O.:** Musikaren bidean sartuak bagaude, hori, beste profesional batzuri jazo zitzaizen moduan, gure haurtzaroan sorturiko joera bategatik izan da. Hauxe duzu guk horri ematen diogun lehenengo justifikazio pertsonala. Behin, garenaz eta gauden herriaz kontzientzia jaiorik, argi dago orijinalak izan nahi dugula. Eta geure xede hori rockariak imitatuz erdietsiko ez genuenez, behin herri hau sakonki ezagututa, ia instintiboki, geure tradizio musikalki propioetan hasi ginen oinarritzen egiten genuena.

Influentzia desberdinen bidez, gure musikak ukan dezakeen nazioartekotasunaz, argi da herri musikak ez direla izaki abstraktuak, toki askotako ukituak erateen dituzte. Eta are gehiago Euskal Herriaren kasuan, Europa eta Iberiar penintsularen arteko pasalekua izanik, beste etnia eta kulturen aztarna ugari geratu zaigu. Gure musikak kainbat irfluentzia daroa, bertoko jatorrikoak ez diren tresna asko erabiltzen dugulako baino ez bada ere, eta tresna horien teknikek ba dakartzate beren herrietan erabiltzen zituztenen eraginak. Kultura maila bertsuegan, tresna berak sortzen dira eta oso antzeko agerpen musikalki munduko alderdi guztietan. Txistua ba da Extremadura-n eta Irlanda-n, Euskal Herrian erabiltzen den bera, baina hemen desberdinki erabili ohi dugu, mende askotan zehar ari baizara halako xirula modurako musika erabiltzen. Orduan tresna horren bidez azaltzeko modu berezi bat dagoela ikusten dugu berto. Hala ere, bereizgarri hori ez da ematen maila berean kitarra edo akordeoiarekin, gure herrira berriki sartuak direnak. Tresna horietan ikus daitezke irfluentziak argienik. Atzerriko jazz, rock eta folkek ere beren pisua dute gure kulturaren, baina ezin ditugu horien irfluentziak lotsagarriro bihurtu, hots, euskal musika egiten ari garena esan, iparramerikar rockariak edo folklorista bretoiak egiten dutena osoki kopiatuz. Gure kasuan, estilo propio bat lortu dugula uste dugu, euskal estilo bat.

## OSKORRI HIRUKOTE

**A.:** Hirukote izateak sinplifikatu egin du Oskorriren soinua eta freskotasan handiagoa eman dio, zuen forma bereziak abandonatu gabe. Nola burutu duzue, soinu eta tresnen egokitze prozesua, hirukotea izanik?

**O.:** Giza elementuak, numerikoki ere, markatu egin ditu orain arte izan ditugun epeak. Lehen bost lagun izanik, zentzu honetako problemek konponbide erraza zuten, gaur konponbidea, entseiu ordu gehiago sartuz, bakotzak tresna gehiago joz eta konponketa musikalki batzu tresna horien posibilitateei egokituz lortu dugu. Oso une aproposan bihurtu gara hirukote, lana azkarkiago burutzea erraztu diguten ideei handiak geneuzkan mementua. Gure agudezia zorroztu egin da, zirkustantziek hori eskatzen baituzten. Jendeak "Diskoan legez entzuten zaie" esaten duenean, zure itaunari erantzuten dio.

## OSKORRI, LP DOBLEA

**A.:** Diskoan, zuen tresnen oinarriaz batean, ohorezko gonbidatuak ere sartu dituzue. Zuen ustetan musika arloan horrelako partaidetasun kolektibozko eta esperientzia trukaketazko iniziatibak sartu behar dira?

**O.:** Oso Interesgarria. Dena den, horrelako lankidetzak maizago ematen ez baldin badira, hori Euskal Herrian musika arloan, eskasiaren "handicap"az jokatzeko dugulako da. Gai honetaz jarraituz, guk beste taldeekin izan ditugun harremanetaz, esango dizut, gure banaketa handiago egin dutela. Tamalgarria da, bertoko zenbait kantari, hemen daukagunaz baliatu beharrean, Madrilera atontzaile baten eskutan erortzen da, honek bere eguneroko lana konputatzailez programaturik ohi du eta holako elkar lan bat egiteko ezagutu behar beharrezkoa den musikoaren sentsibilitatea ezertan ere du aztertzen. Espero dezagun apurka apurka gure musikoaren arteko lankidetzak agertzen hasi daitezen.

**A.:** Testuei so eginik, Oskorri grabatu duen albumik "gorri"ena dela esan daiteke?

**O.:** Entzuten gaituen jendea, guk diskoan ematen dugun literatur maila berean dago. Aresti eta Etxeparearen poesiaz eginko saioak, haien obrei egiten genizkien maitasuneko omenaldiak izan ziren, baina ez da horretaz pentsatu behar album monografikoak egiten dituen talde bat garenik. Gure nortasunari modu berean erantzuten diote, gure klasikoen errebin-dikapenezko lan horiek, beste egile eta poeten letrek eta geureek ere. Denetan, problematika zabal eta desberdinak ukitzen ditugu, kultura ulertzen dugun moduari erantzuten baitiote. Jende guztiak daki zelako gorria den edo ez den Oskorri taldea, eta gure diskoak horren lekuko dira. Orain eta nahiz zirkustantzien konpasean "paso" egiten duen jendea izan, guk ez dugu geure nortasuna zertan ukatu behar.

**A.:** Hau, azaletik diskoaren azken xehetasuneraino autogesionaturiko obra bat al da?

**O.:** Beti egin dugu lana modu horretan. Bai eta CBS multinazionalarentzat grabatu genuenean ere. Oraingoan, bereziki Xoxoa diskoetxeari eman behar dizkiogu eskerrak, diskoaz azaldu genizkion iniziatibak oro bildu eta laguntzearen, gure desioak ere gaitzitu egin ditu. Kasetekin doan liburu ttiki eta, gure ustez, bikain bat atera duelako, komunikabideentzako informazio dossier bat, entzulearentzat eduki interesgarria duena. Ez da orain arte hori egin kaseten merkatuan.

Jarraitu egin dugu Oskorriekin hizketan. Erraz da beraiekin berba egitea, oso kontzeptu argiak dituzte eta beren erantzuteko ahalmena nagusitu egiten da. Kantaldiak, negurako lana, dena Euskal Herrian grabatzea, Estatuko lana... elkarrikuska gai horietaz jarraitzen da. Eta hau guztiau adiskidantza giro baten barnean, Anttonek bere herabetasunaz erdizkunturiko sentsibilitatea jartzen du, Bixentek, kitarra elektrikoari, merkatal erabilerakera ilunetik apartatuz, gizonarengana hurbilagotzen duen plastizitatea eman dion kitarralariaren azkartasun eta nerbioa jartzen ditu, eta gero Natxok, buruaz egiten du berba, baina bere espresioak ba du ere akordeoiaren poz sentimentala eta euskararen eresneurria.

Karlos Arko



“Beste kontzertu bat eman nahi diat Bilbon; ahal diezadakek?” ziotan. Ez, ez nintzen nor Marisari bere musika entzunarazteko aukerarik emateko. Bai ordea, haren grina kezka eta etorkizuna ANAITASUNAREN irakurleei aurkezteko. Eta hori da egin dudana, ea nor den, zer uste duen, MARISA OZAITA deritzan lagun burrukazale sutsu eta kontentagaitz honek. Bospahiru galdera egin diot. Hara...

## MARISA OZAITAREKIN, MADRILGO herbestetik.

**Anaitasunak:** Nor da Marisa Ozaita? Zer egin du?

**Marisak:** Marisa Ozaita musikarenganako amodioak musika egitera, era askotara, bultzaturiko norbait da. Konposatu, jo, eta irakatsi egiten dut, gaztetxoek trebaketa musikalean interes sakona baitut. Neure ihardunaldietan, entzulego egokirik aurkitzekotan, noski, zeregin pedagogiko apur bat egin ohi dut, obreen aurkezpena egiteaz.

Halabeharrez edo hasi nintzen. Piano bat zen etxean, liluratzen ninduen piano bat: zarata egin ohi nuen hartaz. Bestalde nire familian ba zen musikaririk

izan: aitaren anaia bat oso flautajotzaile trebea izan zen. Pentsa ezazue bere 14 urteekin Bilboko bandaren “soloak” egin ohi zituela. Arrakastaz beterik ibili zen, Argentinan hil arte. Konposatzaile bikaina ere zen, baina praktikotasun gabeko gizona... idealista hutsa.

Neroni dagokidanez, Bilboko Kontserbatorioan amaitu nituen piano-ikasketak, eta ia armonia zer zen jakiteke hasi nintzen konposatzen eta egunen batetan amaren herritar bati, REMACHA maestrori eraman egin nizkion neure lanak Tuterara.

Zerbait ikusiko zuen papertxo haietan,

zeren udaran armonia irakasten hasi baitzitzaidan. Geroago eskutitzez egin behar izan nituen ikasketak, bera Tuteran zegoelarik eta ni Bilbon. Ariketak bidali ohi nizkion. Hark zuzenduta, berriro bidali egiten zizkidan. “Estoy vendiendo clavos” esaten zuen gatz handiz.

Handik puska batetara Iruinako Kontserbatorioa sortu zen eta FERNANDO REMACHA zuzendari izendatu egin zuten. Geroztik gauzak erraztu egin zitzaizkidan: ez nuen postaz ariketarik bidali behar, baizik egunero autobusa hartu, Iruifñara, hango Kontserbatorioan armoniaren ikasketak amaitzeko. Baita kon-

trapuntuarenak ere bai... eta konposatu, beti konposatu egiten nuen. Pianozko kontzertu batzu ematen hasi nintzen ere, baina apurka apurka pianoarekiko ezinegon bat nabaritzuz zetorkidan. Nola azaldu? Ez zen nire tresna, pianozkoa ez zen nire bihotz-mamiko musika.

Egia esan kenbaloarenganako mina oso aspalditik bihotzean sartuta nekarren, Bilboko "Sociedan Filarmonica"n frantses klabejotzaile on bati entzun nionetik. Geroztik kenbalo ikasteko jaidurak lagundu nau, eta aukera baten atzetik nenbilen. Abageduna Konpostelako Santiagon presentatu zitzaidan, Udarako ikastaroan, han bainengoen ni uda batez, beka batek lagunduta. Hantxe, piano-orduak amaitzen zireneko, tximista bezain laster, Rafael Puyanaren kenbalozko eskoletara ihes egiten nuen.

Neure burua izkutatu nahi izaten nuen, inork ikus ez nintzan, baina gorputzaren, nire gorputzaren goierak (ia 190 m) salatzen ninduen.

Zenbait urte geroxeago irakasle berberaren Granadako ikastaldira jo nueneko, —ezagutzen zaitudalakoan nago —esan zidan— zu ez zara Santiagon entzuleztat nire ikastaldira egunero etortzen zena?

Beka batekin ere, Copenage-ko Errege Kontserbatorian eman nuen urtebete eta gero Genoveva Galvezekin. Espainian kenbalo jotzailearen titulua lortu nuen.

Orain arte ez dut neure trebetasunak eta ezagupenak gaurkotzeko paradarik galdu, ahal eta udaikastaro gehienetara joz. Aurten, esate baterako, Nantes

inguruko hiri bateko ikastaldira noa, Kenneth-ekin ikastearren. Ihaz ere beragandik asko eta asko ikasi nuen. Konposaketa-ikastaldi batzu egin ditut ere bai, eta lehen, Iruñian han ematen ziren Gregorianozko bi ikastaldiak: TABERNA maisua organua jotzen ikasi nuen hantxe. Jakina, jatorrizko organuaren teknika eta kenbaloarena berdintsuak dira (Bachek ez zeukan etxean organurik, kenbalo bat baik, eta kenbalo batez egiten zituen organuzko obreen saiakerak).

**A.: Zer lortu duzu bitartean?**

M.: Zer lortu dudan? Gauza asko lortu dut, beharbada ez amesten nuen bezainbat, hori bai. Dena dela izen, izentxo bat lortu dut, musikaren mundutxoan norbait izatea. Gainera arrakasta iristen dut neure ihardunaldietan eta kritikak ondo narabil. Inolako "padrino"rik gabe neure lanak ezagutaraztea lortu dut (musikari gutti ez dena), kritika eta entzuleen txaloekin.

Dena dela, ez dut neure burua goraiatu nahi, hoberenetzat hartu nahi. Musika egitea da nik nahi dudana, neure aldetik. Besteen aldetik musika egiten utz nazaten, besterik ez. Geroak epaituko du nik daegidan musikaren balorea.

Hemen, Madrilan, heldu nintzenetik, kontzertu franko eman dut eta etorkizun ona daukat. Urrian, nire obra bat, Bonpau maisuak estreinatzerara animatu ninduen berbera hain zuzen, ezagutuko da mundu zabalean, disko batez. Beste alde batetik nazioarteko karrera hasiko dut, Frantzia (eta behar bada Alemanian eta Dinamarkan) zenbait kontzertu ema-

nez, ea atzerriko kritika penintsulakoa bezain irripartsu zaidan!

**A.: Oztoporik ote, horrenbeste egiteko?**  
M.: Askok, milaka. Eta arrazoi askorengatik. Hasteko, Bilboko gizarte oso maite ez zuen musikari batekin ikastea bururatu zitzaidalako. Maisu hura teknika berrien zalea zen eta erritmua ikertu behar zela zioen ere, Bilboko tardiziozalekeriak jasanezakeen baino askoz gehiago, halagia. Guduak deklaratu egin zitzaion beraz.

Baina niri haiek ziren gehien interesatzen zitzaizkidan gauzak eta berarekin ikasten hasi egin nintzen. JUAN CARLOS GOMEZ ZUBELDIA zeritzan nik hainbeste zor diodan irakasle maite hari. Orain ere ez zaio jaramonik egiten, nahiz eta Bilboko piano jotzaile handi guztien irakasle ohia izan.

Bilbon ere kritika musikala egiten hasi nintzen, baina utzi egin behar izan nion, argiegi mintzatzen bainintzen. (Noski, gainontzeko Bilboko kritikaegileek beste-lako gauzak nahiago zituzten esan). Hitz laburrez Bilbok ez nau ezertan lagundu, ofizialki bederen. Pertsonal mailan ordea oso lagun onak ditut, baina ez dira nire karrera bultzatzeko gauza izan. Hauetarik bati eskerrak kontzertu batzu eman ahal izan ditut, baina erdi pribatuki. Izenik aipatzekotan GONZALO DUO aipatuko dut, nire jarraitzaile amorratu horietariko bat. Berari ere ez zaio gure kulturaren alde egin duena eskertu egin, azpijoku zikin huts batzurengatik.

Beste moztatako pertsona batzuren-tzat lan musikalik izan da Bilbon; nirentzat ez...



Eta azkenez, hainbeste oztopo aukiturik herbestea, Madrilgo herbestea aukeratu behar izan dut, eta hemen, Bilbon lortu ezin nuena lortu egin dut: musika-  
ren irakasletzat lan egitea, kontzertu asko eman... Bilbon geratu banintz lortuko ez nukeena, halebaga.

Gainera Bilbon nire lanei egindako kritikei gorroto zerien. Haien alderdi onak edo txarrak ez dira sekulan aipatzen; nerau lurperatu nahiz zebilzkidan.

Bilboko kritika ez da sekula santan egiazkoa izan. Hemen berriz, inork nin-dezaguelarik, zertan zetzan nire lanen balio apurra (edo akatsak) esan dit kritika.

Oso triste da benetan sorterritik irten behar hau norbaiten merituak ezagutuko badira... triste bezain erreala ordea.

**A.: Euskal muskaritzat duzu zeure burua?**

**M.:** Noski euskal muskaritzat dut neure burua. Osoki. Eta ez euskal deituraz hornituta edo bertokoa izategatik, baizik batik bat gure musika ikertu eta maite izan dudalako. Eta goiz-goizetik hain zuzen. Betidanik ibili naiz gure adirazbide musikalaren atzetik, eta aurkitu dudana nire lanetan dago, egon. Beraz, ezin uka euskal musikaria naizenik.

**A.: Ba dago orduan euskal musika...**

**M.:** Noski, ba dago eta oso berezia. Gu adierazkera, folklore aberats baten jabe gara. Baina beldur naiz ez ote ditugun gehienetan adierazkera horren berezitasunak ezabatu egin, gure musikari berez ez dagozkion armonietaz jantziz, beste herri-tako armoniaz erabiltzeaz.

Delako armonizaketa horiek belarria ferekatu egiten dute, baina ez dute melodiak eskatzen duenarekin zer ikusirik. Bestalde melodiak ez dira paperara behar zen bezala ekarri. Gure folklozezaleek eta ikertzaileek ez dute bere jatorrasuna errespetatu, berdindu, orekatu, baizik. Doinuren bat "herrena" izan zitekeenik edo erritmu aldaketaz ibil zitekeenik ezin zuten ulertu. Beraz "zuzendu", orraztu egin ohi zituzten, eta hala bere berezitasunak galdu egin ziren.

Orain oso une txarrean gaude, komunikabideen eraginpean gure ez dena "guretzat" hainbat hartzen ari gara eta, hitzak Euskaraz datoz edo...

Gainera ez da doinu berririk, benetako euskal doinu berririk asmatzen. Gaitza baina aspalditik datorkigu. Orain 60 urte egin behar izan zen lan serioa ez zen oso ikuspegi zabalez egin. Hortan aita Donostiak Azkuek baino zintzokiago jokatu zuelakoan nago, herri musikaren jitea errespetatuz. Ez dugu zoritxarrez Bela Bartock bat ukan.



Hori dela eta euskal abestiak aztertzean poliki idatzita daudela konturatzen gara; polikiegi nerrake nik, hots herri-gandik urrutiegi.

Dakusazuenez hamaika gogoeta egin dut nik gure musikaz, baina horrenbeste galderari ez diot erantzunik eman ahal izan.

**A.: Amaitzeko: mihi gaiztoek txistuari gorroto diozula diote. Egia da?**

**M.:** Ez diot gorrotorik; aitzitik, biziki maite dut gure kulturaren hain zati garrantzitsu den txistua. Hori bai txistua "osatu" "perfekziona" dadin nahi ez izatea txistuari gorroto izatea ba da, orduan bai.

Txistua osatu? Zergatik? Zertarako? Txistua berez bere eginkizuna betetzeko "perfektu" bada? Herri-tresna da txistu eta, gure musikaren antzera, "soinugaitza", edo, beste molde batez esanda, ez da musika tenperatuarekin ezkontzen. Musika tenpertz bera XVII mendeko azken urteetan sortu zela kontutan hartuz gero hau ez da harritzekoa. Herriak, musika egitean, ez du gisa horretako legea haintzakotzat hartzen eta beste giltza batzuetan jokatzeko du: tonuren laurdenez, esate baterako Beraz, herriak txistua sortu zuenean ez zuen tresna "osatu" bat egin nahi, herriaren beharretarako balio izango zuen tresna bat baizik.

Orain, are okerrago, orkestan sartu nahi da txistua, "kategoria" eman behar omen zaiolako.

Baina orkestak flauta gehiegi dauka, eta ez du txistuaren beharrik.

Eta gainera txistua orkestan sartzeko afinaketa izan ezik tinbrea ere aldatu beharko zaio: halako musika tresnak nekez merezi lezake txistu deitzerik.

Baina beste erasoaldi bat ari da txistu gaixoa pairatzen: txistuzko orkestarrena.

Zertarako txistuzko orkesta bat eratu? "Bach jotzeko" erantzun didate.

**BAINA EZ BACH EZ BEETHOVEN EZIN DAITEZKE TXISTUZ JO.**

Orain hasteko; bigarrenez txistuzko orkestaren zarata entzungaitza da benetan: min egiten dio belarriari, besteak beste gaur txistugintzan erabiltzen diren lehengaiak, zur ez direlako, plastiko baizik, dena "moderno" izatearren.

Txistuak lege zaharrera egin behar dira: zurezkoak, txistuen "Stradivarius"ak (Oraindik gogoratzen naiz Bilboko "Alameda de Recalde"ko txistuegileaz.

Beraz, mesedez, aski da kaskogogorkeriaz, utz dezagun txistua bere bertan, musika klasikoa jotzeko egokia ez baita.

Hau da beraz nik txistuari buruz dudand iritzia, eta ez beste.

Borja Barandiaran

Mundu guztiko azkeneko gorabeherak eta gertaerak ikusi eta entzun ondoren, burura datozkit duela urte asko Paul Lafargue-k, (estatu espainoleko ideia marxisten lehengo aldarrikatzaileen etarik bat) esan zuena. Eta ez neronek entzun nio-lako, noski, baizik eta irakurrita baitut.

Langile klasea, bere jaiotegunaren hasieratik, beti egon ohi da borrokatzen lan kondizio hobea-goak lortzearen; eta horrexetarako grebak, manifestapenak, eta beste mila indar-ekintzak eginik ditu.

bat: sindikatuak direla, alderdiak direla, elkartek... Eta "baten bat" hauek, kolore guztietakoak: gorriak, horiak, beltzak... baina orotan, dinamika edo "leit motiv" moduan, salbuespenik gabe, lanaren aldeko defentsa.

Lanordu guttiago, la orduak hobeto ordaindurik, lan egiteko kondizio hobexegoak, lana denontzat, lana eta bakea... denetarik entzun daiteke. Eskabide guztiak ezin uztarri berdinetik ihesi ordea. Erre-ibindikapenek orok eduki berbera: LAN EGIN.

BEHAR.

Eta krisi mundiala dela kausa, populazioak handitzen diharduela, eta terrorismoak dena birrintzen duelako: ez dago lanik denontzat. Eta orduan datoz tristurarik hunkigarrienak. Eta langileak berriro ka-lean, lana denontzat eskatuz, topi-koa errepikatuz, behin eta behin errepikatuz. Argi dago gehiegi ga-rela! Zergatik ez atsegin gehiago?

Hona hemen Lafargueran erre-ibindikapen jatorra: "nagitasunera-ko zuzenbidea". Ez litzateke horre-la arazo anitz konponduko? Nire

## LAFARGUE-K ARRAZOIA ZUEN



Eta denok dakigunez, borroka berorien bidez lortu du lortzekoa; eta borroka dela eta, ez datza nagusiak guztiz, arras, zapaldurik, izor-raturik.

Edo eta, hori ematen du gaineratik (agian basamortuko irudikeria?), zeren, egiaz, inoiz baino alienatua-go, maneiatuago, eta azken batez; oinpetuago baitager. Eta ez langile klasea soil soilik, klase "popularr" delakoak ere bai.

Langilegoaren atzetik (eta ez aurretik ikusterazi nahi diguten bezala) beti izan dugu presente baten

Eta agian joera ero berorren abortu bezala, gaurko egoera dugu.

Bakarrik begiak ireki, nahikoa dateke egungo mundu kutsatua ikusteko, langileria "konfort" berria biluzik eta amaraunik bako konpreni ahal izateko.

Gizarte berriak "energia"-ren bidez elikatzen omen du bere burua, eta energia beltza (energia ororen oraingo ama, omen) amaituz doa. Eta berarekin kontsumugai guztiak gero eta garestiago: baina lortutako bizi-maila ezin zarrustada batez suntsitu, eta LAN GEHIAGO EGIN


aldetik, pozik eta atseginez gainez-ka hartuko nuke —eta zergatik ez-zertu egingo nuke kontsigna hori.

Langabeziaren mamua uxarazte-ko, hauxe liteke biderik onena, horrelaxe egunoroko orduak bizi berri bitxi bat hartuko lukete eta baharbada egunen batetan oihuka behar izango genuke "lan gehiago, gehiago, gehi..." Baina orain, zer dela eta marxista zahar-jator-arrazoidunari kasurik ez egin?

Karlos Santisteban



# HERMAN HESSE: Arima baten bizitzea (I)



Oraindik askorentzat ezezaguna den gizon hau, Alemaniako "Oihan Beltzeko" herri tiki batetan jaioa dugu, Calwen-en. Thomas Mann, Albert Einstein, Marcel Proust eta Paul Valery-ren garaikidea dugu.

Herman Hesse-z hitzegitea, gizon baten deskribaketa eta biografia simple bat egitea baino askoz gehiago da. H.H.-z mintzatzea pentsamendu baten sakontasunaz eta arima baten biografiaz hitzegitea da.

Bere bizitzan zehar izaniko esperientzia bakoitzak, haren lana aztertzeko balio digu. Haren haurtzaroko bizitza, mistika nahasi bat bihurtzen da eta erlijioaren aurka burruka izpiritual bat eramanen du, haren formalismo, puritasismo eta hestukeriagatik.

Umetako esperientzia eta gorabeherak eragin handia daukate H.H.-ren liburuetan. Eskola urteak, "Damian" eta "Txirringaren azpian" liburuetan azaltzen ditu. Eskola, instituzio bezala kritikatzeko du, eta bizimodu aske bat proposatzen sasoi hartako pedagogiaren orde. Jakturiaren aldekoa izan arren, eskola gaitzitu beharrezko oztopotzat ikusten du.

1901.ean bere lehen liburua ematen du argitara: "Herman Lauscher". Hessen-en metafisikaren lehenengo azalpenak dira. Nietzsche-en ideien eragina garbiro agertzen da.

Naturari erabat lotuta dago H.H.-ren bizitza. 1904.ean "Peter Camezind" argitaratzen da. Horretan, filosofia alde batera utzirik, naturari erabat lotzen zaio.

Urte haietan Marie Bernouilli-rekin ezkondu eta mendira bizitzera doa, Tolstoy legez.

Orduan zeraman bizimodu burjesaz gustora ez dator eta alde batetik bestetara arituko da izpiritua egia aurkitu nahirik. Indiaraino iritsiko da Ekialdeko jakintza-sunaren egiaren bila, baina konturatuko da, egia hori, bere baitan dagoela. Horrela dio berak: "Zubi majikoak neronek behar ditut aurkitu, neure bihotzetik Europari burruka egite utzi behar nuen. Benetako Europa eta Ekialdea ene bihotzean sartzen utzi behar nituzke". Eta Europara itzultzen da.

Suizara joan eta "Rosshalde" elaberria idazten du. Bertan agertzen digu ez dela bat ere zorionsua bere familiarekiko bizimoduaz. Garai honek gerlaren zigilua darama. Alemanian hedatzen ari den izpiritu nazionala utzi eta Suizatik, gizonaren guduzaletasunaren kontra egiten du lana, baina oso guttik hartu zuen kontutan. 1916an nerbioetatik gaixoturik, psikoanaliarekin kontaktutan hasten da. "Damian" liburuan, honetaz eta gerlako gaitzetaz hitzegiten du.

Sasoi honetatik aurrera H.H.-ren lanak izugarriko sakontasuna agertzen du. Haren liburu orotan gauza bera adierazten da: bide latz eta beldurgarrietan zehar pasatu beharra, paradisia erdietsi ahal ukateko.



## HORMAZKO BARRENETAN

Nahiz eta oso ohizkoa ez izan, zentzurik gabeko gauzetan ihardutean (nahiz eta agian, ez guztiz zentzugabekoak) ez da ahaztekoa icebergen edertasuna. Nik behintzat, zokondoetan aurkitzen diren gauzarik lerdenenatariko bat deritzet. Beti kulunkari urezko pendulu eskergan, menditzar hormatua, iharrausi gaituena bere jatorriari buruzko ama bilatzen dugunean.

Anitz (zenbat?) urtetako jela hoztua, metatuta. Inork ez dakien zein pisutako ixiltasunaren itsasturua. Eta beti etengabeko zirkinean, beti labainezko mazelaz, ondikoiz!

hemen bezalaxe, ezen egunoroko txirristaz irrist egiten ohi baitugu. Gure bizitzaren xedearen ttutturua, eta icebergaren bizitzaren ton-torra. Biotan zerbait ezkutua, biotan zerbait lortzekoa, erdiestekoa. Eskuragaitza?

Nik, maiz galdetzen diot neure baitari, nere barneko izozketaren zergatiaz, eta bakarrik leia biotz-barnean. Bakarrik sasigarraxitxo baten oihartzun itzaltsua. Eta nahi nituzke ur aratzak neugan ikusi.

Baina ur garbiak, oparotsuak, ñir-ñir taigabekoak, ez bide daudeke geltze arruntetan.

Horregatixek dakuskit, eta ulertzen, eta beti konprenituko ditut, icebergen zurizko ttantten isladak. Ez baitira gauza arruntak, gezalari degizkioten prestamenak; ez eta uhinen petik, darakutsan lasaitasun zaila.

Horra hor, izotz-mendia, beti ari itxasoa laztatzen; edo eta itxasoak ferekaturik? Itsasoan gaindi eta denboretan zehar hortik doa temati izukaitz. Kresalaren uren, urik hotzena.

Batez ere itsugarriak, eguzki izpitxo irradiatuak; berek eskainiak. Eta ere itsugarriak, eguzki izpi-

txo irradiatuak; berek eskainiak.

Eta bestela dirudien arren, ez diraute gor, egunen biharra itxaroten; jasankor eta jasapenez egon badira-teke ere, geroxeagokoari begira.

Eta berauen barne-bideetan, hormazko ormetan barrena, ba dago oroitzeke dexente. Barnegiturak, hots, izotzeko biotzak; lurrin hilotzairerik hedatu ezik, maitagunerik irakinenak emango lizkioke edonori.

Harritzekoa, benetan, hormarik hormatuenean egon, eta eguzki galdatan bezala senti. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Ez benturaz!

Egunean egunean, egunetik egunera, aspektu osoa arras galduz; barrena beti tinko ordea. Kanpoan kanpokoak ekiten diolako, eta mui-nean adostezintasunik ezak, dena adostasuna bihurtzen duelakotz.

Egun argiz nahiz gauez, bere bakartasunaren (bakartasun etsia) solastun, ikusle bakarra. Eta ongixe eusten dio bere buruari datxekion egoerari.

Urrun-urrun, giza-kondar kira-tsuak, hatsituak; eta beste edonolako zantarkeria-moetak, irain kar-raskariak.

Barne distiratsu horretantxe, bizi nahi nuke nik; orekarik bikaine-nean, behingoz ixiltasunaren itzal-pean murgildurik.

Baina ixiltasunpean, entzungo ote da nire ahotsa?

MUNDUTIK AT

Utz nazak, arren, baketan gezurrezko hitz arina; naramaten, betiko, haizeek dagokidan hildotik bizia.

Askotan, bai, entzuna diat hire ahoan toleskeria; guttitan, orde, ikusi haut baieztazen elekeria.

Utz nazaten nire txokoan zynismoaren mozorroek; neure burua bakartzea nahiago baitut zynismopean irautea baino.

Mundutik at zertuko dizkiat neure baitaren aiherrak; neure kabuz dena egingo ixilik bakartatean.

(Baina lur-gainean gauden artean, oraina dugu hurrengo xedea...)

Karlos Santisteban



batera goinaturazko mende majikoa. Horrela ba ditugu hartan, sinesmen berrien jarraitzaileak: Mesmer, Pascualy, Swedenborg, Claude de Saint-Martin, Cagliostro eta Casanova, denok XVIIIkoak, eta gehienak txarto ezagutuak edo txarto interpretatuak izan dira.

Frantsez iraultzaz esan ohi da, arrazoiak irudimena garaitu zuela, baina arrazoiaren kultuak oso idazle interesgarriak baztertu zizkigun: hauen artean, orain aurkezten dugun J. Cazotte.



Arras gizon jakintsua, diplomatikoa, soldadua eta monarkiko hutsa. Gilotinatuak zituen bere egunak. Zientzi izkuten praktikari amorratua, agian bere ideologia monarkikoagatik izan zaigu hain denbora luzez izkutatua, "intelligentsia"k eta aintzigoardiak ezin baitzuten monarkikoren bat onartu.

"El Diablo enamorado" lehen pertsona idatzirik dago. Protagonista, espainol hidalgo bat da: Alvaro de Maravillas. Honek obra sataniko asko irakurri ondoren, deabrua deitzen du. Agertu egite da berau itxura ikaragarri batez, eta gero neska eder baten gorputza hartzen du, eta Italia eta Espainian zehar pertsegitzen du seduzitu arte. Nerval-ek (hitzaurrearen egilea) errekuperaturiko obra miresgarri hau erromantizismoaren aintzindari dugu; elaberri fantastikoen aintzindari ere, nobela satanikoen gailurratariko bat.

#### LA ROMA DE LOS BORGIA

Apollinaire-ren obra ezezagun bat dugu, René Dalize-rekin batera idatzia. Gaur, Apollinaire-ren obra osotzeko, Icaria argitaletxeak kaleratua, oso eruditoa eta dokumentatua dago, agertzen diren gertaerak benetazkoak izanik, nobela historiko bat dela esan daiteke, beraz. Baina historizismo hori, apaldua geratzen da beti Apollinaire-ren lumaz, ematen dion poetikotasunaz.

Liburuaren hitzaurrean elaberri krudela dela esaten zaigu, eta, krudela dateke beharbada, holakoxea izan zelako Italiako Berpizkundearen garia, eta "Con-

## LIBURU BERRIAK

### LA TROMPETILLA ACUSTICA Leonarda Carrigton

1917.ean Londresen sorturiko pintore eta idazle surrealista, Marx Ernst-en Laguna zenbait urtetan. Orain, "Monte Avila Editores"ek argitara digu haren "La trompetilla Acústica" nobelatxo hau.

Nobela horretan, Marion Leatherby izeneko, larogei eta hemeretzi urtedun atso bati, fantasiako abentura majiko batzua gertatzen zaizkio. Lengoia oniriko eta surrealistaz, eguneroko bizitzako gauzarik ttipienak arazo miresgarriak bihurtzen dira. Atsoaren bizitza, emakume ikuspegi batetatik begiratuta dago.

Berez miresgarria den errealtatea, are miresgarriago bilakatzen zaigu, xahartua den emakume baten begiez ezagututa. Umore fin eta xamurra ere agertzen da Marionen abenturetan. Mundua, familia, zaharretxea eta ingurune érasokorra, emakumetxo honen kontra paratzen dira, adineko edozein pertsonaren kontra legez. Baina mirakulu batez, Marion eta beste atsoak gizartearen jabeak bilakatzen dira.

Nobelaren amaiera, elementu surrealistez beteta dago, baina ezezaguna zaigun errealismo moeta batetakoak: xamurtasun eta maitasunezkoa.

Txarrena, obra hau ia aurkiezina dela, hain preziagarria izanik eta bere egilea hain ezezaguna.



### EL DIABLO ENAMORADO J. Cazotte.

Ediciones del Cotal.artzelona

Arrazoiaren mendea izan omen ezen XVIIIa; filosofia, Entziklopedia eta zientziaren kultuaren mendea, Diderot, Montesquieu, Voltaire, Rousseau etab., mende horretan sorturikoak ditugu. Baina bestalde, irudimenezko menturak eta literatur mailan hainbat elaberri eta fantasiako obrak ere aurki ditzakegu mende hartan. Arrazoiaren mendea eta



dotiero"ena. Elizak ere ez zuen gaitzes- ten ustelkeria hura. Apollinaire-ren lan honetan agertzen zaigun moduan, gizarte osoa, edo hobeto esan, Boterearen ingurunea, hots, eliza, botere politikoa etab, magitu eta zitaldia zegoen.

Baina gainera, Apollinaire-k eta Dalizek, boterearen krudeltasuna erakusten digute, eta berori gordetzeko nahi eta obsesioa. Ez da botereak pertsona usteltzen duena, boterea da berez ustel eta zitala.

Alde horretatik, esan dezakegu berriro, nobela morala dela. Obra ezezaguna, bada, eta Apollinaire-ren lanen osagarri.



"BAIZABAL"

Durangaldekoko aldizkaria

Durangaldekoko gazte eta zahar batzuren ahaleginaz sortu zen aldizkari hau, hemen dugu geure eskuetan bigarren alea.

Artikuluak herrietako jendeak idatzirik dituzte eta zentsurarik gabea da. Hona hemen hitzaurrean diona: Helburua zera da, batez ere, Durangaldekoko herri eta kultur mugimendua esnatu eta bultzatzea, aldizkari independente zabal eta herritar baten bidez...

Kolaboratzea eskatzen dizugu zuri ere, onartuko zaitugu. Lana askoren artean hatzen badugu bakarrik eroan ahal izango dugu aurrera. Zure laguntzaz, bigarren zenbaki honek bere segida izango du hirugarren batean, osoago eta ederrago batean. Bukatzeko egia bat gogoratu nahi nuke, hau da, herri bakoitzak merezi duen aldizkaria duela. Eta egia ez bada, ez du ardurarik.

## LA INTERACCION DEL COLOR

Josef Albers  
Alianza Editoriala


Alianza argilatetxeak, aurtengo liburu askokan, beste liburuen artean, arteari dedikaturiko bilduma bat aurkeztu zuen. Hemen ditugu bilduma horren lehen liburuak: *La interacción del color*, *Arte y percepción Visual* eta *El Significado de las artes visuales*.

La interacción del color

Josef Albers



Lehena, "*La interacción del color*" pintore eta artista ospetsu batek egina dugu: Josef Albers. Gizon hau Ameriketako pintura berriaren sortzaileetarikoa bat da, "Arte konkretua" mugimendu piktorikoaren inportanteenetarikoa eta "Campo cromático" mugimenduaren fundatzaile bat. Bere lan piktorikoa, hezkuntzara dedikatu baino lehen, koloreen ardura bereziaz egina dago, eta ikerketa garrantzitsu bat da gaurko artearen mailan.



1923.ean hasi zen "Bauhaus" eskolan koloreari buruzko ikastaroak ematen. beroago, Ameriketako zenbait unibertsitatetan jarraitu zen irakastaldi horiekien.

Liburutxo honetan, artista eta irakaslearen esperientziak biltzen dira. Koloreaz ari diren beste liburuetan ez bezala, honek ez du argitaratzen teoria edo ezagumena baizik. Sarreran esaten den moduan, liburuak ikasi eta irakasteko era experimental bat biltzen du. Denak esperimentuak dira, eta oso alaiki, jolasten bezala, jarraitzen dira ikasgaiak. Nork bera paper pintatu batzuek jolas dezake, koloreen barnekotasuna ikasten denean, Albert eta bere ikasleekin, liburu hau, denon artean egina baitago.

Bilduma honen hirugarren liburua (bigarrena ez dugu hartzen) Rudolf Arnheim-ek egindako "*Arte y Percepción visual*" izeneko da.

Hau, 1954.ean agertu zen lehenengoz eta handik hona, klasiko bat bilakatu da, arte liburuen artean. Herbert Read-ek esan bezala, Gestalt eskola psikologikoa-ren teoriak arteari eskaintzea izan zen lehen xedea. Edizio hau egileak berak zuzendu eta hobatua dator. Obraren asmoa, arteen elementu guztiak ikertu eta aztertzea da. Oreka, forma, argia, marboa, espazioa, mugimendua eta beste faktoreen balio orokorrak frogatzen ditu, ikasgai horik ikerketa experimental batzurekin argituz.

Lengoaia erraz erraza da eta edozeinentzako asmatua. Hogeitalau urte izan arren, bere baliola mantentzen du oraindik ere, eta artearen bidean zehar abiatzeko, sarrera egokia dugu.



Hirugarrena "*El Significado de las artes visuales*" da. Nork ez du ezagutzen ikonografia, arte eta giza zientzien mailan Erwin Panofsky egilea? Mende honetako humanistetarik nagusienetatikoa bat, Hannover-en jaio zen, eta Hitler-i esker handik handik aldegin behar izan zuen Ameriketara. Bertan Historiazko irakasle legez aritu zen hil arte, 1968.ean.

Liburu honetan gauzarik harrigarriena, Panofsky-k egiten duen aportaketaren izugarria da. Liburuan, artikulua edo saio luze batzuek agertzen dira, Panofsky-k berak bildua. Vasari-ren artearen historia begiratzen du, Ticiano, Pussin (Frantziako XII mendeko pintorerik garrantzitsuenak), eta besteen obrak, baina eguneroko bizitza eta ideien munduarekin loturik, eta ez aparteko gauza bat bailitza.

Oso interesgarriak dira, Saint-Denis-ko abadea, Suger eta Durerori buruzko saioak.

Durerorena konkretuko egin direnatarik interesgarri eta funtsezkoena da. Arte ikertzaile eta idazle honek, bere denborarako ideien ingurunea atera du arte lanetatik eta ikuspegi berri batetatik abiatuz sartzen gaitu artearen mundura.



# NICOLAS de LEKUONA

Gipuzkoako pintoreen artean gailur eta bere garaikideen artean aintzindaririk garrantzitsuena izan genuen Lekuonaren lana berreskuratu egin dugu Bizkaiko Aurrezki Kutxari esker.

Arras ezezaguna ia, baita artista eta intelektualen artean ere (bere garaikideen sal buespenaz, Oteiza kasu). Haren bizia biziki motza izan arren, uzti zigun obra ezagutzea, oinarrizkoa dugu, gaurko euskal pintura konprenitzeko.

Garai batetako Arteta, Iturrino, Etxebarria eta gaurregungo Zumeta, Ortiz Elgea eta beste batzuren artean dagoen jaurzia egiteko, hutsune bat dugu, Lekuonaren lanaz betetzen dena. Gure pinturaren historian, aurreko pintura "faubista" edo edozelako errealismotik, gaurko abangoardia zorrotz honetara iritsi arte, Lekuonaren obra jarri behar genuke erdian.

54

Ordizian jaio zen gure pintorea 1913an. Geroago, Madrilera doa karrera egiteko, baina laster sartuko da bertako giro intelektualetan; antza, Gomez de la Sernaren lagunartean, Pombo Tabernan agertu ohi zen. Harez gero, haren bizitza Madril, Ordizia eta Donostia artean banatuko da.

Donostian izan zuen, beharbada Europear aintzinguardien berri, hamazazpi urte zituelarik. Donostiako "Gran Casino" ko aretoetan, Cossio, Picasso, Juan Gris eta beste batzuren erakusketa bat antolatu baitzen, eta, hain zuzen ere, sasoi berean, Buñuel-en "Un Chien Andalous" filmea projektatu zen Gipuzkoako Ate-neoan. Nahiz eta berak erakusketa ikusi ez, berarekin iritsi zen Euskal Herrira, pintura berriaren albistea, eta haren ezagumena giro artistikoetara hedatu.

Hogei urtez, "Premio de Pintores No-

veles Gipuzcoanos" sariketara presentatzen da eta bigarren saria eskuratuko du, "Ellos son los detritus" koadroaz. Urtebete beranduago, Oteizak, Narkis Balentziagak eta berak, "Kursaal" go aretoetan eraturiko erakusketa batetan parte hartzen du.

Ordudanik, hogeitalau urtez hil arte, Madrilerako bidaien artean pasatuko da haren bizitza, pintura eta artearentzako bizitza.

Urte eskas haietan egindako koadroen bidez, Europako artearen haize berriak ekarri zituen Euskal Herrira, Madrilen ezagutzen zuena, Italiatik zetorkiena, Futurismoa, Dada, Surrealismoa, eta, bera izanik korronte horien ekarlea.

Gipuzkoako hainbat herri bisitatuta gero, Bilbora etorri zaigu orain erakusketa-omenaldi hori. Oleo batzu, antz ma-

razki, argazki eta fotomuntaiak ekarri dizkigute; informal samarrak batzu, eta neurri laburrekoak gehienak, marrazki asko, esate baterako, bere aitaren koaderno batetan eginak.

Fotomuntaiak, "Dada" aire batez eginak, oso interesgarriak gertatzen zaizkigu, eta duela berrogeita bost urte egin zituela kontutan hartuta, are interesgarriagoak; hots, Lekuona izan zela argazkiak esprebide bezala erabili zituen lehenetarikoa, Renau eta besteekin batera.

Koadroek, desberdin samarrak izan arren, ba dute Picassoren aire bat, eta bestalde, Tanguy frantses surrealista gogora ekartzen digute. Ez zitzaion, hala ere, erraza izanen Lekuonari Tanguy ezagutzea, baina, Picasso ezagutuko zuen segur aski, Lekuonaren koadroak eta Picassoren garai batekoak, antzekoak baitira. Ez dugu honetaz, kopiatzen zuenik esan nahi, ezta bion obrak berdinak direnik ere, baina bai nolabaiteko erlazio bat dagokeela, haren obra ingurune artistiko bati lotzeko, arte obrek ez baitute sorketa espontaneorik, eta Lekuonaren obra ezin erlazioa daiteke lehenagoko artista euskaldunekin, eta are guttiago, Espainian zegoen ingurune kulturalarekin.

Lekuonaren pinturaren alderdi nabarmen bat, bere oleotan ehunari ematen zion tratamendu heterodoxoa da, teknika propio batez baliaturik, oleoari bestelako gaiak gaineratuz, edo oleo neurri handi bat erabiliz, azal zimurtsu bat lortzen du, erliebea balu bezala.

Erretratu batzu, estaliak agertzen zaizkigu edo lepoa ematen, ispiluaren beldur bailitzan, misteriozki, urrundurik.

Elementu surrealista eta misteriotasun hori, funtsezko marrazkiarekin loturik agertzen direnean lortzen ditu ehunik hoberenak. Irudien marrazkiak edo estatua bilusienak, nahasiak, besarkadaka, mosuak ematen, maitemindurik bailiren.

Beste euskal pintoreen kasuan ez bezala, kolorea ez da gogorra edo "faude" diridratsua (Arteta, eta gaurko Balerdi edo Zumetarengan legez), pastelezko nabarduraduna baizik, lur margoak, gris eta urdinaren artekoak.

Irudi eta paisaiaren artean, elementu surrealistez eginiko koadro horiek, Europako aintzinguardiari lotuak, Europear pintura onenarekin parekatzea merezi dute.

Fotomuntaiak ere oso onak dira, fantasiaren elementua erabiliz eta koadroetan agertzen ez den elementu batez estaliak: umorea.



Bizkaiko frontean hil ziguten 1937an. Guduak ohostu egin zigun, hasieratik hainbat indarrez argitzen ari zen obra bat. Hogeitalau urte, bere koadro eta marrazkietan sasoi hartako Europear aintzinguardiaren berriak laga dizkigun pintore batentzat. Europako korrante artistikoak gure herriko pintoreei hurbildu egin ziz-

kien artista batentzat. Haren obrari, denborarik eza nabari zaio, obra handiago baten promesa agertuz. Baina, hare mezu piktorkoaren balioak, hain gaztea izanik, gerra madarikatzera bultzatzen gaitu, beste hondamendien artean, Nikolas Lekuona gaztearen heriotza ekarri zigulako.

Jon Sendagorta

# Erregai Zelula Zentralak

Energia eta berak dakartzan problemak gero eta inportanteagoak bilakatzen ari zaizkigu. Alde batetik energia lortu behar da, gaurko gizartearentzat erabat beharrezkoa baita. Bestalde, gure ingurugiro hau nahiko jota dagoenez gero, ekologiarren aldeko kanpainak sarriagoak eta exigenteagoak dira. Honek gobernuen legeak nolabait baldintzatzen hasi da. Eta hori dela eta, gobernuak ingurugiroa defendatzeko zenbait lege izenpentzen ari dira. Lege hauek diotenez, emisioek ez dute muga edo maila bat gainditu behar. Lege hauek direla eta, zentral elektrikoak (fuel edo ikatzekoak) ezin dira hiri barnean eraiki. Beraz, behar den elektrizitatez hornitzeko, zentral hauek hiritatik kanpo muntatzen dira. Bestalde, transmisio sistemak garestiagoak bilakatzen ari dira. Alde batetik posteak eraiki behar dira, eta bestetik baimenak lortu. Guzti honek E.E.B.B. etako zenbait konpainia bildu eta programa bat prestatzera bultzatu du. Programa honen helburua erregai zelula zentralen azterketa teknologiko eta ekonomiko bat egitea da. Zentral hauek oraingo diseinatu eta eginak daude. Lehenik ere beste batzuekin ziren, baina beren erabilpena oso mugatua izan zen: Apollo eta Geminis unti espazialak behar zuten energiaren hornitzea.

Guzti hau alde batera utziz, ikus dezagun zertan oinarritzen diren aipatutako "erregai zelula zentralak".

Aparailu hau 1839.urtean Sir William GroveGrove jakinarazi zuen. Bere baitan

energia kimikoa zuzenki elektrizitatean bilakatzen da. Asmatu eta gero alde batera utzi zen, orduko teknologia ez baitzegoen nahiko aurreratuta. Baina unti espazial horietan erabili ondoren, modelo komertzial batzuek asmatu dira, ez zelula batez osatuak, baizik eta bosteheun edo gehiagoz. Teknologia honek ba du etorkizunik, alde batetik besteekin konpetitzeko gai delako, eta bestetik ingurugiroa ez baitu izorratzen, hala nola erregaiak aurreratzen.

Jakina da elektrizitatea produzitzen denean, hiru zentral mota aurki ditzakegula. Zenbait kasutan ez dira bi baizik izaten, baina sistema honek galerak sortarazten ditu, 3 motak hauek dira:

a) oinarritzekoak: beti berdin funtzionatzen dute, gau eta egun. Adibidez: zentral nuklearrak, termiko handiak.

b) erdimalakoak: Kargari jarraitzen diote zenbait kasutan. Besteak bezain handiak ez izanik, errazago gel eta martxan jar daitezke.

c) huts hutsik kargari jarraitzen diotenak: honetarako E.E.B.B. orain arte gas turbinak erabili dira, segidan pizten baitira. Gaurko gure gaia hemen kokatu behar dugu.

Erregai zelulak bat batean funtzionatzen dute, ez dira alde aurretik berotu behar. Nola funtzionatzen du ordea gauza harri-gari honek?

Erregai zelula bat bi elektrodoz -bata negatiboa (anodoa) eta positiboa (kato-

doa) bestea, noski- eta elektrolito batez osatuta dago. Elektrolito honek ioiak transmititzen ditu, baina ez elektroiak. Erregai bat anodora zuzentzen da, hidrogeno kasu normalean, eta airearen oxigenoarekin elkartzen ura sortuz. Honetarako beharrezko diren elektroiak kanpoko hari batez heltzen dira. Hari hau herri bateko sare elektrikorara lotzen badugu, badugu korronte elektrikorik, zeren eta azken hau ez baita elektro fluxu bat besterik. Halaz ere, mundu honetan gauzak ez dira hain errazak izaten. Hemen lortzen dugun korrontea ez da aldizkaria, zuzena baizik eta zentral honek behar duen erregaiak ez normalki naturan aurkitzen, prestatu egin behar da lehenik. Baina ez gara honetaz arduratuko.

Honelako zelula batek sortzen duen tentsio zuzen maximoa erregai eta oxidatzailearen funtzio termodinamiko bat da. Hidrogeno eta oxigenoaren bidez funtzionatzen duen zelula batentzat tentsio teorikoa presio eta temperatura normalean 1,23 volt. da. Baina hau teorikoa da, ez praktikoa. Zelula barruko galerak direla ta, tentsio hau 0,6-0,85 voltetara jaisten da.

Bere egitura, bestalde, honelakoa da: xukapaper mehe batetan elektrolitoa jartzen dugu, eta bi aldeetara bi elektrodo porotsu, honela elektrodo hauek azalera handi bat lortzen baitute. Behar diren katalizadoreak elektrodoetan jartzen dira. Zelula hauek bata bestearekin bilduz pakete handiak egiten dira. Orain New York-en esperimientalki muntatuko diren zentralak 450 zelulaz osaturik daude, bakoitzak 500 watt 0,65 volt-etan eskaintzen duelarik.

Zelula hauek era askotara bana daitezke. Diferentziak hauek dira: elektrolitoa, operazio temperatura, oxidatzailea eta erregaiak. Lau faktore hauekin nahasketak egiten hasten bagara, zentral mota ugari lortu ahal izango dugu. Baina praktikan oso modelo gutxi lor daitezke. Batazutan elektrolitoa da mugatzailea, besteetan erregaiak e.a. Adibidez, azido fosforikoa aukeratzen bada elektrolitotzat, tenperatura 150 eta 200 C artean egon behar du, elektrolitotzat karbonato urtua erabiltzen dutenek, berriz, 600 eta 700C artean funtzionatu behar dute. Bi zentral hauek dira gehien aztertu direnak, azken teknologia oraindik oso aurreratua ez egon arren.

Zelularen interesa hiru propietatetan oinarritzen da:

a) bere efikazia: makina termikoa ez denez gero, ez dago Carnot zikloarengatik mugatuta. Hau dela ta, beste makinak baino efikazia handiagoak lortzeko posibilitaterik badugu. Baina zelula baten efikazia eta bere tamainua independenteak





Energia eta berak dakar-  
tzan problemak gero eta  
importanteagoak bilaka-  
tzen ari zaizkigu.



Ekologiarentzat erasoak ez  
diren alternatiba energeti-  
koak behar ditugu.

izango dira. Zentral tipo honek badu bes-  
te alde onik ere. Bere potentzia ener-  
getikoaren 25 etik 100 arte, bere efika-  
zia ez da aldatzen, konstantea da. Beraz,  
karga jarraituz funtzionatzen duten zen-  
tralak erregaia aurrezteko posibilitatea  
eskaintzen dute.

b) Ingurugiroarekiko konportamen-  
dua: Bere prozesua elektrokimikoa denez  
gero, bere emisio bakarrak, ura eta airea  
kanpo utziz, erregaiaren tratamenduari  
dagozkionak dira. Datutara pasatuz, bere  
emisioak EE.BB.etan legeek uzten dutena  
baino 10 aldiz txikiagoak dira. Zentral  
hauek ez dute zaratarik sortzen, ezta u-  
rik ere (35 C etan) behar ere: Guzti ho-  
nengatik zentralak hiri barnean munta  
daitezke, bakoitzak hauzo bati behar du-  
en energiaren hormituz.


c) Bere egitura modularra: segidan o-  
hartzen gara honelako teknologia batek  
dituen posibilitateaz. Serie handiak pro-  
duzi daitezke, honek prezioak gogor jai-  
tsiz. Zelula bat izorratzen denean, na-  
hikoa dugu hori aldatzea. Hauzo batetako  
energi kontsumoa handitzen denean,, ze-  
lula gehiago jartzeak problema hori kon-  
pon dezake.

Etorkizuna hau izan daiteke: zenbait  
etxe komertzial eta erresidentzial energi  
autonomia bat izan dezakete honelako e-  
kipo txiki hauek muntatuz, bide batez se-  
gurtasuna eta efikazia handituz.

Zentral txiki hauek gas naturala erabi-  
liko lukete erregaitzat. Zentralak energia  
elektriko eta termikoa eskainiko luke, ho-  
rretarako elektrizitatea sortzeko behar  
den erregaia bakarrik erabiliz. Oraingoz  
diseinatu diren zentral batzuren efikazia ia  
100 ekoa da, honela funtzionatuz. Eta  
honek badu ondorio garbi bat: gas erre-  
serbak luzatu egingo dira, behingoz ener-  
goa ondo erabiltzen ikasten badugu.

“J.J. ELHUYAR”





# Bai, Jauna, bai: Fisika Euskaraz.

Nork esan du euskaraz ezin  
esplika daitekeela nuklear fisikak?  
José Ramón Etxebarnak,  
Bilboko Unibersitateko irakasle honek,  
estudiante euskaldunei, fisikan buruzko  
mintegiak euskara soilean ematen dizkie.

Eskola normalerako ikastoharrak ere  
euskara hutsean prestatzen ditu.

EUSKARA zientzia lanerako ere  
hizkuntza egokia baita.

Euskaldunok bezain egokia, noski.

Euskara indarberritzearen alde  
CAJA LABORALEko gizarte ekintza saila.



CAJA LABORAL POPULAR  
LANKIDE AURREZKITA

EUSKADI 16 MUTXA



## Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

**H**orrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.

